Txuma Murugarren
Azken diskoa aurkeztu zuen Elgetan
KULTURA, 24

Arloteak eta Solano garaile futbol zortzian
Nesken bost taldek eta mutilen 12k jardun zuten azken jardunaldian
KIROLA, 15

Jone Muxika
Treparriscos proba irabazi zuen
KIROLA, 21

ASTELEHENEKO
Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko ekainaren 20a • 2. urtea • 62. zenbakia • 0,90 euro

Justizia euskaraz, aspaldiko erronka

Euskara anekdota hutsa da. Hala adierazi zuten bost adituk EHEk deitutako mahai-inguruan

Euskararen erabilera %0,1 da justizia administrazioan. Zergatik da? Erakundeek baliabide gutxi jartzen dituztelako egoerak hobera egin dezan, eta herritarrek apenas egiten dutelako euskarazko eskaerarik. Horiek izan ziren zapatu eguerdian EHEk deitutako mahai-inguruan bildutako bost adituen ahotik entzundako ondorio nagusiak. 6

ITZULPEN SISTEMA
Itzulpena da legeak euskaldunari eskaintzen dion soluzio bakarra, baina hutsune handiekin

BOST ADITU MAHAIAN
Esteban Umerez Justizia Euskaraz-eko lehendakaria eta Nekane San Migel epailea izan ziren tartean

AINTZANE AGIRRE

Errekonozimendu santua jaso dute

MCCko sortzaileek gotzainaren eskutik jaso zuten saria 2-3

ARGAZKI PRESS

BERGARARRAK EUSKAL HERRIKO TXAPELDUNORDE DIRA
Asier Ena eta Maite Lazkano txapeldunen (Azpitarte anai-arrebak) 3 puntura geratu ziren atzo jokatutako Euskal Herriko Dantza Txapelketan, 372 punturekin. Bergarako hainbat ordezkari aritu ziren lehian: Aitzol Ena eta Miren Illarreta 4. eta Alex Torre eta Josune Fernandez 5. izan ziren. 25

Haurreskola Partzuergoko langileek lanuztea egingo dute eguenean 9

ETAren adierazpena dela eta iritzia eman dute ibarreko politikariek 4

Udalatx ez zulatzeko mobilizazioak

Plataformak mendi martxa eta bilkura deitu ditu uztailaren 9rako 7

San Juan bezperako suak

Arrasaten izango dira ospakizun handienak baina herri gehienetan egingo dute sua 9

GEUREAN

• Hamalau auto klasiko erakutsi zituzten atzo, Elgetan turismoa bultzatzeko ekimenaren barruan | 7
• San Juan jaien atarian danborrada egin zuten umeek Arrasaten; eguenean hasiko dira jaiak | 8

Aste Zapatista herri bazkariarekin bukatu zuten zapatuan Eskoriatzan | 7

AITA SANTUAREN AITORMENA KOOPERATIBEN FUNDATZAILEEI

AINTZANE AGIRRE

Vatikanoko gurutzea jaso ondoren, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin, Uriarte eta Setien gotzainekin batera atera zuten argazki ofiziala omenduek.

OMENALDIA | JUAN MARIA URIARTE GOTZAINAK EMAN ZIEN AITA SANTUAREN AITORMENA KOOPERATIBISMOAREN SORTZAILEEI

Hunkituta jaso zuten izendapen santua MCCren sortzaileek

Arantzazuko Gandiaga Topaguneko areto nagusia jendez gainezka zegoela jaso zuten aitormena Pureza Aranzabal, Carmen Galdos, Gorroñogoitia eta Ormaetxeak

Marijo Deogracias

"Ematen zaizkidan ahalmen guztiei jarraiki, eta elizaren aldeko ekintza guztiak kontuan harturik, nire esker oneko ezaugarritzat ematen diet ohorezko San Silvestre dama eta zaldun-orden izendapena Pureza eta Carmeni eta Alfonso eta Jose Mariri". German Lekuona Arrasateko parrokoak irakurri zuen latinez idatzitako pergaminoan Vatikanotik zetorrena. Ondoren, Juan Maria Uriarte gotzainak jarri zien "nahiko ezohikoa den kondekorazioa, Elizari eta xede katolikoari bultzada ematen nabari lan egin dutenei" esanez.

Ekitaldi oso hunkigarria izan zen. Tarteka, ordea, Arantzazuko ekitaldira iritsi aurretik izandako lanari keinu ugari egon ziren. Hizlari guztiek adierazi zuten, kooperatibismoaren lau bultzatzaileek ez zutela horrelako errekonozimendurik nahi; Uriarte gotzainak ere aitortu zuen "Gotzainari ezetz ez esateagatik onartu zutela". Horrela baieztatu zion Alfonso Gorroñogoitiak: "Gotzain Jaunak nahi izan du Aita Santuak guri onespen bat egitea kooperatibetan egindako lanagatik edo berak esango dituen beste arrazoiengatik. Hori hala izanik, obedientziaren exijentzia zen Gotzainaren nahia onartzea. (…) eta Elizaren sari bat, gauza inportante eta serioa da guretzat… horrelako oihartzun erlijioso bat duelako, hau da, gure Elizarekiko erantzukizunak eskatzen digun dei berezia delako. Hortaz, gure gotzainaren desioari obeditu diogu."

Ohore handiko ekitaldia izan zen. Oñatiko abesbatzak hasi zuen *Agur Jaunak* abestuz, aretoa jendez lepo zegoela. Ondoko aretoan ekitaldia jarraitzeko pantaila handi bat jarri zuten eta beheko solairuko aretoan ere gauza bera egin behar izan zen, batutako jendetzak ekitaldi guztiak jarraitu zitzan. Jabier Retegik omendu bakoitzaren izaeraz jardun zuen eta amaieran ezin izan zuen emozioa ezkutatu, Jose Maria Arizmendiarrietaren esaldietako bat gogora ekarriz amaitu zuenean.

A. Gorroñogotia: "Gure Gotzainaren desioari obeditu diogu"

"Elizaren aldeko ekintza guztiak gogoan, ematen diet ohorezko izendapena"

KOOPERATIBAK EZ DAUDE SALGAI

Juan Maria Uriarte gotzainak adierazi zuenez, "nahiko genuke zuek ikasiak dituzuen hiru alderdi uztartzea: jaso duzuen sentiberatasun kooperatiboa, aukeren eta zailtasunen azterketa egiteko gaitasuna eta zailtasunak saihesteko ahalmen profesionala. Eginbehar horretan beti izango duzue gure ulermena eta arnasa. Herri honek ia bere ondaretzat dauzka Arrasateko Kooperatibak. Eta ez dauzka saltzeko".

AITA SANTUAREN AITORMENA KOOPERATIBEN FUNDATZAILEEI

• ZER IZAN DA ZUENDAKO AITORMENA EMATEKO EKITALDIA?

ALFONSO GORROÑOGOITIA |
KOOPERATIBEN FUNDATZAILEA

"Batez ere hunkigarria izan da. Astoak letxe lan egin dugu, baina, milaka pertsonen laguntzarekin"

Berak egin zuen lau omenduen izenean berba ekitaldian eta obedientzia eta erantzukizunean laburbildu zituen ekitaldiaren sentimendu eta pentsamenduak. Hala ere, ekitaldiagatik galdetuta "batez ere hunkigarria" iruditu zitzaiola aitortu zigun. "Milaka pertsonen gauza izan da gaur aintzat hartu duguna; egia da astoak letxe lan egin dugula, baina beste milaka horiek barik ezinezkoa izango zatekeen".

CARMEN GALDOS |
JESUS LARRAÑAGAREN ALARGUNA

"Berba barik geratu naiz. Gehiegizkoa iruditu zait ekitaldia, handiegia"

Erabat hunkituta egon zen Carmen Galdon, Jesus Larrañaga zenaren alarguna, zapatuko ekitaldian. Berba egiteko indarrik ez zuen, emozioak hartuta. "Oso handia da hau, hunkigarria" esan zigun betaurreko ilunak kendu barik. Hunkituta zegoen eta ezin izan zuen besterik esan, "oso polita izanda" agurtu gintuen, gehiegizkoa izan zela aitortuz ondoan zituen lagun eta alabari.



JOSE MARI ORMAETXEA |
KOOPERATIBEN FUNDATZAILEA

"Espirituak gidatuta lan egin dugulako, izaera espirituala duen saria eman digute"

"Omenaldia egingo zigutela jakin nuenean zera pentsatu nuen: zenbat oker izango ote ditut nik hau ez merezi izateko. Izan ere, merituak konpartitzeko dira" esan zigun Jose Marik jaso berri zuen medalla eskuetan zuela. "Espirituak gidatuta lan egin dugulako, izaera espirituala duen saria eman digute", adierazi zigun irrifartsu Ormaetxeak, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria agurtzeko zain zuela.

PUREZA ARANZABAL |
LUIS USATORRERENALARGUNA

"Ez nuen pentsatzen hainbestekoa izango zenik. Oso sakona izan da hau guztia"

Kostata lortu genuen omendu guztiekin egotea. Hainbeste izan ziren eurengana hurbildu eta zoriondu zituztenak ze, txanda itxaron behar izan genuen. Luis Usatorreren alargun Pureza Aranzabalekin ere izan ginen eta bera ere emozioari eutsi ezinda zegoen. Ez zuela hainbestekoa izango zenik espero aitortu zigun "oso sakona izan da, gehiegizkoa". Hala ere, gustagarria ere izan zela esan zigun.

Aurpegi ezagun mordoska egon zen Arantzazun zapatuan MCCko sortzaileei egindako ekitaldian

Aldareko eskaileretan hainbat koloretako lau arrosa, lau omenduen irudi; lana adierazteko erreminta kaxa; kandela zabal piztua, Jesusen Jainkoaganako fedearen sinbolo eta fedearen argiak eraginda lana ogi eta bidezko elkartasun bihurtzen dela irudikatuz. Hori guztia jarri zuten Arantzazuko aldarearen aurrealdean zapatuan egindako mezan. Euskal Herriko arlo guztietako ordezkariak izan ziren MCCko sortzaileen omenezko mezan. Han ziren, besteak beste: Juan Jose Ibarretxe, Juan Maria Uriarte eta Jose Maria Setien, Jose Antonio Ardanza, Jesus Catania, Rafa Larreina, Joseba Azkarraga, Jabier Retegi, Emilio Guevara, Jose Mari Pastor, Ramon Rabanera, Jose Ramon Beloki, Jose Juan Gonzalez de Txabarri, Ignacio Lakunza, Andoni Gartzia, Jose Mari Velez de Mendizabal, Xabier Mendiguren, Andres Urrutia, Juan Jose Arrieta, Juan Mari Otaegi, Juan Mari Atutxa, Agustin Markaide...

Ekitaldien ostean, luntxa eskaini zieten bertaratutakoei. Zapatukoa izan zen Gandiaga Topagunean egin zen jendaurreko lehenengo ekitaldia.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2005eko ekainaren 20a

IRITZIAK | EKAINAREN 1EAN UTZI ZITUEN BERTAN BEHERA HAUTETSIEN KONTRAKO EKINTZA ARMATUAK

Ibarreko hainbat lagunek ETAren adierazpenaz hitz egin digute

Espainiako alderdi politikoetako hautetsien aurkako frontea itxi du ETAk 'bertan behera utziz horien aurkako ekintza armatuak'

Paco García (PSE-EE).

Itziar Lamarain (PP).

Iñigo Alberdi (EAJ).

Iñaki Galdos (EA).

Ander Rodriguez (EB).

Aitor Arantzabal (Batasuna).


Xabier Sarasua (Aralar).

Mikel Lezamiz (Soziologoa).

PACO GARCIA | PSE-EE

"Albiste ona da, baina asko bizi dira oraindik ere mehatxupean"

"Albiste positiboa izango da beti ETAk borroka armatua uzteko erabakia hartu duela jakinarazten duena. ETAren erabakia, baina, partziala da. Ez du hautetsien aurkako atentaturik burutuko. Zer gertatzen da poliziekin, abokatuekin, enpresaburuekin... Gizarte honetan mehatxupean pertsona asko dago oraindik ere. ETAk armak behin betiko utzi behar ditu. Norabide horretan emandako pauso guztiak ongietorriak izango dira, baina ez dira sekula ere nahikoa izango".

ITZIAR LAMARAIN | PP

"Ez dut tranpa hitza erabiliko, baina mesfidantza handiz hartzen dut albistea"

"Nik galdera ikur handiak jartzen dizkiot ETAren azken iragarpenari. Ez naiz fio. Lehen ere izan ditugu su-etenak eta denok ikusi dugu nola amaitu diren. Nahiago nuke benetakoa balitz! Dena den, ETAk behin betirako su-etena iragarri behar du, ez eremuka edo pertsona multzokako suetena. Amaitu egin behar du borroka armatua. Orain momentuan ez dut tranpa hitza erabili nahi, baina mesfidantza handiarekin hartzen dut albistea".

IÑIGO ALBERDI | EAJ

"Ez da ETArengandik espero dugun urratsa, baina aurrerapauso bat da"

"Gure balorazioa positiboa da. Prozesu batean sartuta gaude eta ETAk eman duen urrats hau aurrerapausoa da. Ez da Euskal Herriak ETArengandik espero duen pausoa, baina bada zerbait. Azkenaldian agertoki aldaketa egon da eta pauso hau horren adierazgarri da. Normalizazioaren bidean beste urrats bat. ETAren horrelako pauso batek normalkuntzarako bidean jartzen gaitu eta horrelako urratsek abertzaleen arteko batasuna lortzeko aukerak areagotzen ditu".

IÑAKI GALDOS | EA

"ETAk tutore lanak egiteko asmoarekin jarraitzen duela dirudi, zoritxarrez"

"Albiste ona eta pozgarria da jaso berri dugun hau, gehien bat orain arte mehatxupean bizi izan diren zinegotzi eta hautetsiei begira. ETAk, baina, behin betirako utzi behar ditu armak. Benetako bake prozesuan herritarrei eta indar politikoei utzi behar die protagonismo guztia. Benetako bake prozesuan ETAk ez ditu zertan tutore lanak egin behar eta, zoritxarrez, erakundea asmo horrekin dabilela ondorioztatzen dugu bere azken komunikatuan. Hori albiste txarra da".

ANDER RODRIGUEZ | EB

"Su-etena da behar duguna. Madrilek presoak hurbildu beharko lituzke"

"Komunikatua positibotzat jotzen dugu, baina eskasa, mugatua eta zehaztugabea dela uste dugu. Emanaldikako su-etenak ez du zentzurik eta ez da gizarteak espero duena. Aurrerapauso bat da, baina ez da behin betikoa.

Gure ustez momentu egokia litzateke Madrilek presoak hurbiltzeko. Bake prozesua nahi badugu bi aldeek eman beharko dute amore. Une egokia da pauso hori emateko. Madril aukera ikusteko gai izatea espero dugu".

AITOR ARANTZABAL | BATASUNA

"Garaia da prozesu antzuak gainditu eta gatazkaren konponbideari heltzeko"

"ETAk berriro erakutsi du bere borondatea zein den. Gatazkaren konponbidea da bere nahia. Bada ordua beste alderdi eta eragile askok hitzen, salaketen eta gaitzespenen prozesu antzu hori behingoz gainditu eta behin betiko konponbideari heltzeko. Nola egiten da hori? Batasunak Anoetan aurkeztutako proposamena izan daiteke bidea. Bada ordua, aldi berean, hemengo alderdiak (EAJ, EA, EB eta Aralar) hitzetatik haratago joateko. Denon ordua da".

XABIER SARASUA | ARALAR

"ETAk norabide berean pauso gehiago ematea espero dugu"

"ETAk norabide egokian emandako urrats inportantea dela uste dugu. Zinegotzien familiendako lasaitasun handia izango da zalantzarik gabe. Espero dugu ETAk pauso gehiago ematea eta norabide berean ematea gainera; ez azken aurreko komunikatuan adierazi duen norabidean. Bukatzeko, uste dugu Espainiako gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak distentsio keinuak ere egin beharko lituzketela. Honek ETAk hurrengo pausoak ematea erraztuko luke".

MIKEL LEZAMIZ | SOZIOLOGOA

"ETAk erakutsi nahi du benetan ari dela prozesu horretan"

"Iragarpen oso ona da, batetik giroa lasaitzeko eta, bestetik, bake bidean. ETAk erakutsi nahi du benetan ari dela prozesu horretan; ez direla hitz hutsak. Hitz egitea baino gehiago da ekintzak geratzea eta oraingoan ETAk ekintza bat egin du.

Euskal Herriko eta Espainiako politikagintzan ari direnek kontuan hartu beharko dute ETAren adierazpena, eta ziur naiz hartuko dutela. Badirudi zerbait bazetorrela iragartzen zutenek gizarteak ikusten genituenak baino datu gehiago zituztela. Prozesua, orain bai, etorkizunera begira hasi da".

AINTZANE AGIRRE

Jose Mari Etxaniz eta Mikel Zubimendi preso ohiak barikuan egon ziren Elgetako gaztetxean.

Etxaniz eta Zubimendiren bizipenak bertatik bertara

Errepresioaren gaineko asteburua egin dute Elgetako gaztetxean Esna Hadi taldeak antolatuta

Larraitz Zeberio

Barikuan eman zioten hasiera Errepresioaren Asteburuari Elgetako gaztetxean. Bergarako Jose Mari Etxaniz eta Mikel Zubimendi preso ohiak gonbidatu zituen Esna Hadi taldeak euren bizipenak eta gogoetak bertatik bertara entzuteko.

Hogei bat lagunen aurrean hitz egin zuten bi preso ohiek. Etxanizek bideo baten bidez erakutsi zuen hamar urte eta erdiz arauzko neurriak betetzen ez zituen isolamendu gela izan zuena.

EUSTEA HELBURU

Kartzelaratzearen lehen egunak, tortura, espetxeratzea, kartzela barruko bizipenak... "Kartzelan zure emozioak erreprimitzen ikasten duzu" esan zuen Etxanizek. "Eustea soilik garaipena da eta kartzelatik ihes egitea, berriz, sekulako ostikada", gaineratu zuen Zubimendik.

ASKATASUNA

"Kalea idealizatu egiten duzu. Irten eta beste kartzela mota batean sartzen zara", esan zuen Zubimendik. Bi hilabete pasatxo daramatza kalean Migelonek. "Euroa, telefono mugikorrak, jendea nonahi... Gauza arruntenak ere ikasi egin behar dira", esan zuten bergararrek. "Zurrunbilo handia da. Eskertzen dira afari eta ongi etorriak baina ez da erraza diala hartzen. Bere denbora behar duen prozesua da".

Dispertsioaren krudeltasunari buruz ere aritu ziren. "Ez da soilik presoen aurkako neurria eta guztiz debaldekoa da. Kolektiboa inoiz baino gehiago batu du gainera".

• IKASLAN GIPUZKOA SARIA

JOAQUIN VILLA DIPUTATU NAGUSIORDEAK JASO ZUEN BERGARAN

Egubakoitzean Ikaslan Gipuzkoa Saria banatu zuen Ikaslanek, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen elkarteak, Bergaran. Bigarrenez banatu dute aurten sari hori eta Foru Aldundiak jaso du.

Saria jasotzera Joaquin Villa Diputatu Nagusiordea etorri zen Foru Aldundiaren ordezkari, eta Iñaki Konde Gipuzkoako Ikaslaneko lehendakariaren eskutik jaso zuen. Horrez guztiaz gain, ekitaldian egon ziren, beste batzuen artean, Lanbide Heziketako Zuzendari Iñaki Mujika eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako hainbat ikastetxe publikotako zuzendariak.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

• BERGARAKO GAZTETXEA

LARRAITZ ZEBERIO

BAZKARIAREKIN OSPATU DUTE 5. URTEMUGA

Asteburuan bukatu dira Bergarako gaztetxearen 5. urtemuga ospatzeko Gazte Asanbladak antolatutako ekitaldiak. Eguaztenean hasi zituzten ekitaldiak eta askotariko gauzak egon dira: serigrafia tailerra, euskarazko film laburren emanaldia... Asteburuari dagokionez, antzerkia izan zen egubakoitzean eta zapatuan, bazkaria (30 bat lagun izan ziren) eta ska-reaggae festa gauean. Ekitaldiokin ospatu nahi izan du Bergarako gaztetxeak bost urte daramatzala kartzela zaharreko eraikinean.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2005eko ekainaren 20a

EUSKARAREN PRESENTZIA EPAITEGIETAN | BERGARAKO EHE-K ANTOLATUTAKO MAHAI-INGURUA EGIN ZEN ZAPATUAN

Hausnarketa euskarak epaitegietan bizi duen egoera latzaren inguruan

Gaur egun prozedura judizialaren hizkuntza gaztelania da. Euskara erabili daiteke, baina itzulpen bidez eta eskaera eginez gero

AINTZANE AGIRRE

Ezkerretik eskuinera Esteban Umerez, Mikel eta Pernan, Unai Iturriotz, Xabier Yurramendi eta Nekane San Migel.

Larraitz Zeberio

Euskara anekdota hutsa da epaitegietan. Bat datoz Justizia Euskaraz elkarteko lehendakari Esteban Umerez, Justizia hizkuntza normalkuntzarako teknikari Xabier Yurramendi, EHEko Mikel eta Pernan eta Nekane San Migel epailea. Euskal Herrian Euskaraz taldeak gonbidatuta bi orduz aritu ziren zapatu goizean bost hizlariak gaiaren inguruan.

EGOERA KEZKAGARRIA

Gaur egun 206 bat epaile daude EAEn eta %10 besterik ez dira euskaldunak. Datu ofizialik ez badago ere kalkulatzen da euskararen erabilera %0,1ekoa dela epaitegietan.

Egoera honen aurrean Eusko Jaurlaritzak justizian hizkuntza normalkuntzarako teknikariak sortu ditu, baina bi besterik ez Gipuzkoa osorako.

Ezin da ukatu egoera kezkagarria ez denik, kontuan hartuta, gainera, funtzionarioen hizkuntza ezagutzari ematen zaion balioa hutsala dela. Langile hauei 2. hizkuntza eskakizuna besterik ez zaie eskatzen, EGA baino maila kaxkarragoa, eta gainera ez da ezinbestekoa.

EUSKALDUNEN ERANTZUKIZUNA

"Euskararen egoera epaitegietan oso larria da baina lehen errudunak gu geu gara", esan zuen Nekane San Migel epaileak. "Justiziarekin arazoak ditugunean lehenbailehen konpondu nahi izaten ditugu, baina ez baditugu gure demandak euskaraz egiten jai daukagu. Ez digute ezer oparituko".

Epaile arrasatearrak gaineratu zuen epaileak euskalduntzearekin ez dela nahikoa, justizia alorreko langileak ere euskaldundu behar direla. "Errolda zibilean, ertzaintzan, epaiketa zibiletan, ezkontza edo banaketetan... hasi euskaraz! Aurkako jarrera oso bortitzak daude gaur oraindik ere funtzionarioen artean".

"Abokatu euskaldunak badaude", gaineratu zuen Justizia Euskaraz elkarteko lehendakari Esteban Umerezek. "Profesional euskaldunak batzen ditu gure elkarteak. Euskararen aldeko aukera egiteak beldur handia ematen du oraindik ere, baina lehen urratsak eman behar ditugu".

Iritzi berekoak ziren Lea-Artibaiko EHEko kide Mikel eta Pernan. "Gure eskualdean zitazio elebidunak lortu ditugu. Guk, herri ekimen batek, pauso txiki batzuk ematea lortu badugu zergatik ez du Eusko Jaurlaritzak ahaleginik egiten? Baliabide eskasia da beti aitzakia. Batzuetan jartzen dituzte baliabideak eskatu ere egin gabe. Administrazioak hizkuntza eskubideen alde egin beharko luke. Denok ordaintzen ditugu zergak".

Eusko Jaurlaritzako teknikari Xabier Yurramendiren iritziz "hizkuntza gaitasunen inguruan eboluzio txiki bat egon da. Gaia konplexua da eta luze joko du". Oraingoz, 144 dokumentu estandarizatu direla esan zuen.

HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Legeak itzulpena besterik ez dio eskaintzen euskararen aldeko aukera egiten duen herritarrari. "Ez da ordea itzultzailerik behar izaten, eskaerarik ez dagoelako", esan zuen San Migel epaileak. "Zerbitzua eskaintzeko ardura duenak ez du sekula garatuko beharrik ikusten ez badu". Hizlariek onartu zuten, bestetik, funtzionarioei onartzen zaien euskara maila oso eskasa dela eta hizkuntza eskaeren sisteman aldaketak beharko liratekeela.

• ELKARRETARATZEA BERGARAKO EPAITEGI AURREAN

'BERGARAKO EPAITEGIXAN NOIZ EUSKARAZ?' Mahai-ingurua bukatu ondoren eta Euskal Herrian Euskarazek antolatuta manifestazioa eta elkarretaratzea egin ziren Bergaran zapatu eguerdian. Hogeita bost bat lagunek hartu zuten parte herriko epaitegi aurrean bukatu zen ekitaldian. Bertaratutakoek epaitegi honetan ematen den hizkuntza eskubideen urraketa salatu zuten, langileen gehiengoak ez du-eta lana euskaraz betetzeko gaitasunik: 31 langile dira eta 12k dute hizkuntza eskakizuna. Zazpi ari dira euskara ikasten. Elkarretaratzean euskararen normalkuntzarako plangintza eraginkorra indarrean jartzea eskatu zuten.

Esandakoak

"Euskararen egoera oso larria da epaitegietan, baina gu geu gara egoera horren lehen errudunak, euskaldunak"

NEKANE SAN MIGEL | EPAILEA

"Euskararen aldeko aukera egiteak beldurra ematen du, baina urratsak eman behar ditugu"

ESTEBAN UMEREZ | JUSTIZIA EUSKARAZ ELK.

AINTZANE AGIRRE

Aurreko asteburuan eta oraingoan jarri dituzte sinadurak batzeko mahaiak.

Udalatx ez zulatzeko bilkura eta ibilaldia deitu dituzte

Asteburuan bukatu du sinadura batzea Bai Udalatx! plataformak eta eguaztenean zehaztuko dituzte hurrengo urratsak

M.B.

Udalatx mendia zulatzearen kontrako sinadura batzea bukatu zuen atzo Arrasateko Bai Udalatx! plataformak.

Aurreko asteburuan eta oraingoan egon dira sinadurak batzen herriko hainbat gunetan, eta taldeko kideen esanetan, eguaztenean batzarra egingo dute jasotako sinadurak batu ondoren balorazioa egiteko eta aurrera begirako urratsak zehazteko. Gaztetxean batzartuko dira, 18:30ean.

Hala eta guztiz ere, aurreratu dute mendiaren zulaketa salatzeko beste ekintza bat prest dutela: uztailaren 9an bi mendi ibilaldi antolatu dituzte Udalatx inguruan. Bata, lau ordu eta erdikoa, eta bestea bi ordukoa, aukeran luzeagoa edo motzagoa egin nahi duenarendako. Horren ondotik, elkarretaratzea egingo dute 13:00etan Kanpanzarren. Bai Udalatx! plataformak dei egiten die herritarrei ekintzotan parte hartzera.

Ilargia eta Jupiter ikusi zituzten Lau Bidetik

Marijo Deogracias

Ilatargi elkarteko kideek antolatutako hitzordura kurioso mordo bat elkartu zen joan zen eguenean. Arrasateko Lau Bide plazan Ilargia eta Jupiter ikusteko bi teleskopio handi jarri zituzten Ilatargikoek. Gaueko 10etatik gauerdira arte egon zen jendea ilaran txandaren zain; ehun bat lagun igaro ziren handik. Ilatargi taldekoek adierazi digutenez, "jendeak ikusmin handia erakutsi zuen eta zain egon behar izan zuten arren, patxada erakutsi zuten. Ilargia eta Jupiter erakutsi nahi izan genituen, sasoi honetan oso ondo ikusten dira eta. Horrez gainera, gaztetxoenek jolas egiteko kohetea jarri genuen. Urez beteriko Coca Cola botila batekin egindako jolas bat da. Airea sartu eta hegan ateratzen da kohetea. Arrakastatsua izan zen gaztetxoenen artean, asko etorri baitziren gurasoekin batera".

BIHAR GEHIAGO

Martitzenean berbaldia antolatu dute astronomiazaleek. Espazioaren esplorazioaren gainean arituko da Bittor Rodriguez Ilatargi taldeko kidea Monterronen. Hitzordua: 19:30ean. Asmoa da berbaldi didaktikoa egitea, ahalik eta jende gehienari astronomiaz gutxieneko kontzeptu batzuk erakusteko eta jakin-mina pizteko.

Ilatargi astronomia elkartean Debagoieneko hainbat lagun batzen dira. Eurekin harremanetan jartzeko ondoko helbidea erabili daiteke: *ilatargi@hotmail.com*.

San Juan jaien barruan egin dituzte ekitaldiok.

MANU ARREGI

Gauerdian ere hurbildu zen jendea planetak ikustera.

Jende asko aritu zen Eskoriatzan egindako Aste Zapatistan egin dute

M.D.

Bosgarrenez hamar urtean, egin dute Zapatista Astea Eskoriatzan. Zapatuan amaitu zuten, egun osoko ekitaldiekin. Goizean umeendako jolasak, eguerdian herri bazkari mexikarra –mojito eta guzti– eta iluntzean perkusio emanaldia Gaztetxean.

Antolatzaileek modu positiboan baloratu dute aste barruan egindako ekitaldiek izan duten harrera "jende gutxi ibiltzen bada ere, kontzientziazio lana lortzen badugu horrekin nahikoa dugu; azken batean horixe dugu helburua: gure bailaran kontziente izatea beste errealitate batzuk badaudela".

ERRETIRATUAK JAKIN-MINEZ

Aste Zapatistaren barruan erretiratuen egoitzan hitzaldia egin du Yurrek eta adierazi digunez, "jakin-min handia izan dute. Hitzaldian jende asko egon zen eta benetan eskertzekoa da gure erretiratuen jarrera. Ni neu oso gustura geratu naiz".

• AUTO KLASIKOEN KONTZENTRAZIOA ELGETAN

HAMALAU AUTOMOBIL HISTORIKO IKUSGAI ATZO HERRIKO PLAZAN

Auto zaharrenak 90 urte zituen, 1915. urteko Ford T modeloa zen. Bi martxa zituen, egurrezko hagunak eta martxan jartzeko biraderari eragin behar zion bere jabeak.

"Ikusmin handia sortu dugu jendearengan", esan zigun antolatzaileetako batek. "Nagusiengan, gehien bat, laster ezagutu dituzte eta Bergarako taxia izandakoa, Lasagabaster ehungintza enpresako Chrysler 77 markako furgoneta edota Legazpiko Patricio Etxeberriak erabiltzen zuen Mercedes 170 autoa". Egun osoz egon ziren Elgetan.

AINTZANE AGIRRE

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

HAUR DANBORRADA | SAN JUAN BEZPERAN EGINGO DA ARRASATEN NAGUSIEN DANBORRADA

Danbor hotsez iragarri dute jaien hasiera Arrasateko 130 gaztetxok

Ordubeteko atzerapenarekin hasi zen ekitaldia, Bandako kide baten hileta elizkizunak egin zirelako

Udaletxeko balkoian utzi zituzten haurrek Ikurriña eta Arrasateko bandera, jaiak hasi diren seinale

Larraitz Zeberio

Eguen gauera arte itxaron beharko dugu urteroko San Juan sua pizteko, baina Arrasaten hasiak dira dagoeneko jaiak. Horrela eman zuten aditzera zapatuan SUCDek antolatutako haur danborradan parte hartu zuten 130 gaztetxoek.

Nafarroa etorbidean egin zuten hitzordua haur danborradako jeneralak, hiru banderadun neskek, lau danbor nagusiek eta zazpi konpainiatan banaturiko neska-mutikoek. Arrasate Musikaleko Banda ere bertan zen ezkerreko besoan krespoi beltza zutela, berriki hildako kidearen oroigarri. Musikariek jo zuten musikaren erritmora astindu zituzten danborrak kupelari eta danborrari gazteek.

Bero handia egin zuen zapatuan, baina arratsaldeko 20:00etarako tenperaturak behera egin zuen Arrasateko kaleetan eta haize freskoa altxatu zuen denon mesedetan.

Haur danborradak ohiko ibilbidea egin zuen: Nafarroa etorbidean hasi eta Biteri, Garibai, Maala eta Erdiko kale zeharkatu ondoren herriko plazara iritsi zen. Jende ugarik jarraitu zituen haurtxoen nondik norakoak. Seber Altube jendez gainezka aurkitu zuten danborrari gaztetxoek.

Bandak jo zuen musikaren erritmora astindu zituzten danborrak eta kupelak gaztetxoek

Jende askok ikusi zuen danborrada. Seber Altuben eta plazan batu zen jende gehien

AINTZANE AGIRRE

Gaztetxoek gogoz astindu zituzten kupel eta danborrak Bandak jotako musikaren erritmora.

DANBORRADA KOLORETSUA

Mikel Otxandiano jenerala izan zen lehena alde zaharrean sartzen. Zaldi gainean egin zuen ibilbidea. Atzetik zituen hiru banderadun neskak, Saioa Errazti, Izaskun Mariñelarena eta Ainhoa de Toro. Gainerako haurrek oinez egin zuten bidea. Txikienek karrozan egin zuten ibilbidea, baserritar jantzita.

Danborrada koloretsua izan zen. Mikeleteek, gastadoreek, kantinerek, kupelariek, danborrariek eta sukaldariek publikoaren arreta lortu zuten.

EMANALDIA PLAZAN

Danborrada 21:00ak jo aurretik sartu zen Herriko plazara. Jenerala eta banderadun neskak udaletxeko balkoira igo ziren. Ikurriña eta Arrasateko bandera jarri zituzten balkoian danborrariek eta bandak *Tatiago*, *Donostiako martxa*, *Gora Arrasate*, Udalpe eta San Juanetako *ereserkia* jo zituzten bitartean.

• ARRASATEN NABARI DA SAN JUANAK GERTU DIRELA

NAGUSIEN DANBORRADA GERO ETA GERTUAGO. Arrasatearrak San Juan bezperan egingo den nagusien danborrada prestatzen ari dira. Aurten zaldi gainean aterako diren lau emankumeak dituzue ikusgai argazkian. Ezkerretik eskuinera, Rakel Ruiz (Arrasate), Leire Lopez (SUDC), Igone Altzelai (Ikurriña) eta Pepi Gorosabel (Amazona). Nagusien danborrada ekainaren 23an, 23:00etan abiatuko da Nafarroa Etorbidetik.

HAUR DANTZARIEN EGUNA. Lore Gazteak taldeak Txikitxu Arroiztaitzen laguntzarekin domekan egindako festan zortzi dantza talde elkartu ziren Arrasaten. Arrasatearrekin batera Antzuola, Oñati, Aretxabaleta, Iruña, Irun eta Markiñako 220 dantzarik alaitu zituzten goiz eta arratsaldez herriko kaleak. Sagar dantza, makil txiki, brokel dantza eta ipurdi dantza eskaini zituzten, besteak beste, dantzari gazte hauek.

Albiste izango da

DEBAGOIENA | HILAREN 23AN ETA 30EAN IZANGO DIRA

Haurreskola Partzuergoko langileek lanuzteak deitu dituzte

Haurreskola Partzuergoko langileek –0 eta 2 urte bitarteko haurrekin lanean dihardutenek–, mobilizazioak hasi zituzten aurreko astean EAEn. Geurean ere izango du eragina; Arrasateko Bedoñabe Herri Eskolan 9 langilek lanuztea egin zuten eta baita Antzuolako, Elgetako eta Oñatiko Herri Eskoletako bina langilek ere. Lan Hitzarmena negoziatzen dihardute eta hainbat gaitan duten ezadostasuna da mobilizazioen arrazoia; lanaldian eta egutegian, batik bat. Eguenean lau orduko lanuztea egingo dutela iragarri dute, 07:30etik 11:30era. Hurrengo lanuztea hilaren 30ean izango da.

BERGARA | HILAREN 27RA ARTE

San Martzial erromeriarako aulkiak errentan hartzeko epea zabalik da

San Martzialgo erromeriarako mahaiak eta aulkiak errentan hartzeko epea zabaldu dute gaur, astelehena. Eskaerak hilaren 27ra bitartean egin ahalko dira. Horretarako jo kultura etxera astegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da eta ezin izango dira bost mahai baino gehiago hartu. Diru hori bueltatu egingo dute uztailaren 4tik 8ra bitartean, kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara. Bestalde, mahaiok eta aulkiok uztailaren 2an banatuko dituzte, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kantina ondoan. Horrez gain, Udala boluntario bila dabil erromeria egunean, arratsaldez, egiten diren jokoak antolatzeko. Interesatuek deitu 943 77 91 59 telefonora.

ESKORIATZA | ZAPATUAN AMAITUKO DA

Santa Marinako etxe-eskatzaileei inkestak egingo dizkie Udalak

Ekainaren 14an ekin zion Eskoriatzako Udalak inkestak egiteari, Santa Marinan egingo diren etxeetako bat lortu nahi dutenei. Bizilan enpresa ari da galdetegia egiten eta derrigorrezkoa da etxea eskuratu nahi duenak inkesta erantzutea. Horretarako aukera dago ekainaren 25era bitartean, zapatua. Arana kaleko 13. zenbakian jarri du bulegoa Bizilan enpresak, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00 ordutegian aste barruan eta 10:00-13:00 ordutegian zapatuan. Aldez aurretik txanda hartu nahi izanez gero deitu: 626 76 65 01 telefono zenbakira.

Inkestatuek diru-irabaziak egiaztatu behar dituzte eta egindako azkeneko errenta aitorpena erakutsi beharko dute. Galdetegia nahi den etxebizitzaren ezaugarrien gainekoa da.

BERGARA | IKASKETA EGITARAUA AURKEZTUKO DUTE

Bergarako UNED zentroak 2005-06 ikasturtea aurkeztuko du gaur

Bergarako UNED ikastetxe elkartuak 2005-2006 ikasturterako prestatu duen ikasketa egitaraua aurkeztuko du gaur, astelehena, Donostiako Koldo Mitxelenan. Han izango dira Bergarako UNED Patronatuko kide eta Foru Aldundiko Instituzio eta gizarte harremanetarako diputatu Fernando Tapia eta UNEDeko zuzendari Juan Jose Alvarez.

UNEDek eskaintza zabala egingo du: hogei bat ikasketaz gainera 25 urtetik gorakoendako sarrera ere eskaintzen du, bai eta udako ikastaroak, hizkuntzak, masterrak eta heziketa zikloak ere.

DEBAGOIENA | MARTITZENEAN AURKEZTUKO DITUZTE

Euskara planak aukeztuko dituzte Bergaran eta Aretxabaletan

Bergarako eta Aretxabaletako Udalek euskara planak aurkeztuko dituzte asteon. Bergarakoaren kasuan, herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko egindako plana aurkeztuko du Euskara Zerbitzuak. Bihar, martitzena, izango da, 19:00etan, gobernu batzorde gelan.

Aretxabaletari dagokionez, Euskara Biziberritzeko Plana aurkeztuko dute. Hori ere bihar, martitzena, izango da, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Udaleko iturrien esanetan, Euskara Biziberritzeko Plana garrantzitsua da eta herritarrei eta eragileei dei egiten diete aurkezpenera.

Hitzorduak

BIZIKLETEN ETA OINEZKOEN MUGIKORTASUNAREKIKO KONPROMISOAK |
Martitzenean aurkeztuko ditu ondorioak Oñatiko Mugikortasun Foroak

Aurrerantzean Oñatin egiten diren urbanizazio planetan bizikletan ibiltzen direnendako eta oinezkoendako guneak errespetatzeko konpromiso batzuk hartu ditu Oñatiko Udalak herriko hainbat eragilerekin. Hala, Mugikortasun Foro bat osatu zuten eta egoeraz hausnartu dute hainbat batzarretan. Ondorioak eta konpromisoak bihar, martitzena, aurkeztuko dituzte, kultura etxean, 18:30ean. Hausnarketa hasi zen Txirrinka elkarteak arau subsidiarioei ipinitako helegite baten harira. Elkarte horrek eskatzen zuen egingo ziren auzuneetan mugikortasun baldintzak bermatzea.

ARETXABALETA |

• Odol-ateratzeak egingo dituzte gaur, astelehena
Odol-ateratzeak egingo dituzte osasun zentroan, 16:00-20:00 ordutegian.

• Euskara Biziberritzeko Plana aurkeztuko dute
Euskara Biziberritzeko Plana aurkeztuko dute bihar, martitzena, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Plan garrantzitsua denez, eragileak eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte.

ARRASATE |

• Emakume errefuxiatuen gaineko erakusketa
Emakume Errefuxiatuak delako erakusketa ipini dute herriko zenbait gobernuz kanpoko erakundek Monterronen, eta hil osoan dago zabalik.

BERGARA |

• Ikasturte bukaera ospakizunak ikastetxetan
Ikasturte bukaera ospatuko dute San Martin Agirre, Ipintza eta Miguel Altuna ikastetxeek. Gaur, astelehena, jaialdia izango da; bihar, martitzena, pilota txapelketako finalak; etzi, eguaztena, jolas tradizionalak; eguenean, hilak 23, euskal dantzak, eta bukatzeko, egubakoitzean, hilak 24, txangoa egingo dute.

• 55ean eta 60an jaiotakoen kinto batzarrak, asteburuan
55ean eta 60an jaiotakoek kinto batzarrak egingo dituzte ekainaren 25ean, zapatua. 55ekoek Zabalan afalduko dute, eta izenematea jatetxean edo Fronton tabernan egin behar da. 15 euro da. 60koek Zumelagan afalduko dute. Izena emateko, 20 euro sartu behar da Kutxako euren kontuan.

DEBAGOIENA |

• Turandot elkarteak afaria antolatu du uztail hasieran
Turandot adiskide elkarteak afaria egingo du Arrasaten uztailaren 9an. Debagoienean egiten duten lehenengo ekintza da eta debagoiendar guztiei dago zabalduta. Izena emateko, deitu honako telefonora: 696 91 35 66 (Juan).

• San Juan Bezpera ospatuko dute hainbat herritan
San Juan Bezperan, hilaren 23an, ospakizunak izango dira ibarrean. Arrasaten egongo dira ekintza gehien: arratsaldetik hasita, umeendako jolasak, dantza emanaldiak eta, gauean, San Juan sua eta arbola jasotzea. Iluntze partean, sua piztuko dute eta arbola jasoko dute ere Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan.

• Uztaileko ikastaroak, AEK euskaltegien eskutik
AEK euskaltegiek uztaileko ikastaroetarako izenemate epea zabaldu dute. 1. eta 2. mailetako prestakuntza, EGA eta Hasiera ikastaroak emango dituzte. Izena emateko, jo Arrasateko Erdu euskaltegira (943 77 03 69) edo Bergarako Akulura (943 76 95 18).

ELGETA |

• Kirol arloa dinamizatzeko taldea sortu nahi dute
Kirol arloa dinamizatzeko taldea sortu berri dutenek batzarra egingo dute gaur, astelehena, kultura etxean, 19:30ean. Taldearen nondik norakoak zehaztu eta lehen pausoak emateko antolatuko dira.

• Ardo-dastatze saioa antolatu dute eguenerako
Ardo-dastatzea egingo dute eguenean, hilak 23, Espaloia antzokian, 20:00etan.

ESKORIATZA |

• Herriko edadetuendako jaialdia antolatu dute
Edadetuek jaialdia izango dute eguenean, hilak 23, erretiratuen etxean, 17:30ean, San Pedro jaien egitarauaren barne da ekitaldia.

OÑATI |

• Bizikleta konponketa eta bide-hezkuntza ikastaroa
Elkar Hezi ikastetxeak antolatu du ikastaro hori ekainaren 23 eta 24rako, ikastetxean, 17:00etan. Izenematea zabalik dago 943 78 28 70 telefonoan.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Txakur hiltzaileak ibarrean

Entzule batek idatzi digu txistuka eta arrazoi guztiarekin, gainera. Ehiztaria izanik ehizarako hainbat txakur dituela kontatu digu, baina joan zen asteburuan bere hiru txakur hilda agertu zitzaizkiola kontatu digu: "Bi txabolaraino iritsi ziren eta han hil ziren, hirugarrena, bila atera nintzenean aurkitu nuen. Pozoitu egin dizkidate txakurrak; zein helbururekin egin duten, ordea, ez dut ulertzen. Zer kalte egiten dio inori ehiza txakurrak?".

• Belarra mozteko premia biribilguneetan

Oñatiko bizilagun batek bidali digu hurrengo txistua. "Saihesbideko biribilguneko belarrak moztu, mesedez! Auto gidariok nahiko zailtasun izaten ditugu autoa gidatzerakoan errepideko zuloak, gidari "azkarrak" eta bestelakoak zaintzen, eta gainera bidegurutzeetan ez dugu ikusten. Saihesbide berriko biribilguneen inguruetako zelaietako belarra mozteko premian dago, hortaz, lagundu gidaritza hobea egiten".

• Gaztetxoei errespetua

Uda sasoian gehiago ikusten direla eta, hasi da jendea txirrindulariekin topo egiten errepideetan eta baita herri barruan ere. Horren haritik iritsi zaigu hurrengo txistua. Gure irakurle batek honakoa ikusi zuen joan zen astean: "Oinezkoendako zebra bide baten ia-ia harrapatu zuten bizikletariek emakume bat. Herri barruan ibiltzen diren bizikletari gaztetxoei deia egin nahi nieke, mesedez, errespetu gehiagorekin ibil daitezen. Espaloi gainetik zein errepidetik ibiltzen dira, oinezkoendako inolako errespetu barik. Gero, kexatuko dira errepidera jarrera berdinarekin ateratzen direnean!".

Sarean harrapatuta

Kirol taldeetako zaleen arteko lehia

Zapatuan jokatu zuen Eibar futbol taldeak denboraldiko azken partidua. Datorren denboraldian euskal talde asko izango ditugu Espainiako futbol ligako lehen mailan jokatzen. Ondorioz, derbiak ere amaitu berri den denboraldian baino gehiago izango dira. Lehia horien aurrean zaleek izan beharko luketen jarreraz galdetu dute *Goiena.net* webgunean. Hemen bildu ditugu erantzun batzuk.

LEHIA EGON BEHAR DA, BAINA GIRO ONEAN

Nire ustez denon artean elkartasuna egon beharko litzateke, lehia pixka bat egon dadila baina giro onean. Parranda asko ere behar da, duda izpirik gabe. Gora euskal talde guztiak eta animatu ditzagun denak!

Treio / www.goiena.net

ORAINGO MODUAN JARRAITU BEHAR DUGU

Nire ustez orain dagoen moduan jarraitu beharko luke, gure lehiatxo eta haserreekin baina denok lagun izaten. Derbiaren ostean, galtzaile eta irabazleak kalera irten behar dugu parrandan, orain arte egin dugun moduan. Eta Eibar igotzen bada are gehiago! Gipuzkoako bi talde lehenengo mailan egotea luxua da, eta biei eman behar zaie babesa eta laguntza.

Gibelalde out / www.goiena.net

ALDAKETARIK EZ DUGU BEHAR ZALEEN ARTEAN

Euskaldunok beti izan dugu kristoren giro ona derbietan, zergatik aldatu behar dugu hori?

Jarrera / www.goiena.net

ZALEEN LEHIA EZ DA FUTBOLA BAKARRIK

Zergatik egiten dugu beti futbolari buruz berba? Zaleen arteko lehia futbola baino zerbait gehiago da!

Futbolaz / www.goiena.net

TALDE GEHIAGOREKIN ZALEEN LEHIA HOBEA

Nire ustez, zenbat eta euskal talde gehiago egon goi mailan jokatzen, orduan eta hobea izango da zaleen arteko harremana. Eta hori futbolean, eskubaloian edo edozein kiroletan izaten da ona. Baina, egia da futbolean ikusten dela gehien zaleen arteko harreman hori, baina zer egingo diogu bada?

Ni, behintzat, derbi guztietara joango naiz. Ez naiz oso futbolzalea, baina derbietan egoten den giroa asko gustatzen zait.

Datorren urteko denboraldian ia aste bukaera oro derbiren bat izango dugu. Hori bai izango dela ona!

Juanan / www.goiena.net

BETI ANIMATU BEHAR EUSKAL TALDE GUZTIAK

Zaleen jarrera zein izan beharko litzatekeen? Talde guztiak animatzea, nahiz eta bat gehiago animatu. Beti egon izan da lagun arteko lehia on hori txartzen saiatu, ez dute lortu oraingoz.

Segi dezagun euskal taldeak animatzen, galdu edo irabazten dutenean.

Beti animatu / www.goiena.net

FUTBOLA DA JENDEA MUGITZEN DUENA

Arrazoi osoa daukazu, baina zorionerako edo zoritxarrerako futbola da jende multzoak mugitzen dituen kirola.

Gazte bat / www.goiena.net

EUSKAL ZALEAK ONDO KONPONTZEN DIRA

Inoiz baino euskal derbi gehiago izango ditugunez, inoiz baino gehiago animatu beharko litzateke. Zaleen arteko lehiak beti egongo dira, baina euskal zaleak ondo konpontzen dira. Pasa den zapatuan koadrilako bi lagun joan ziren Iruñara Osasuna animatzera eta zapatu honetan Eibar animatzera doaz.

Imamon / www.goiena.net

DIRU ASKO BEHARKO DUGU DERBIETARAKO

Horrenbeste derbirekin a ze presupuestoa! Kalimotxo gutxiago edan beharko dugu!

Joni / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Gaztetxoen %7k hileko 40 euro erabiltzen du sakelako telefonoan. Gehiegizkoa da erabilera ?

JERONIMO CASQUERO | TELEFONIA DENDARIA

Baietz uste dut. Berez mobila erreminta oso erabilgarria da, baina ondo erabili ezean kalte ekonomiko handiak eragin ditzake. Guk geuk adin txikikoei ez dizkiegu telefonoak saltzen, baina umeek guraso asko konbentzitu egiten gaituzte eta kasu egin eta erosi egiten diegu.

JUANJO OTAÑO | PSIKOLOGOA, HUHEZIN

Gehiegi, ezta? Zein da gaztetxoen aurrekontua? Nork finantzatzen du? Non daude mugak? Esfortzuak duen balioa, helburuak lortzeak duen garrantzia eta ematen duen poza denok ikasi behar dugu. Sakelako telefonoa, beste hainbat gauza bezala, poz horren jatorria izan daiteke gaztetxoentzat.

RAKEL MURGIONDO | GAZTETXOEN IRAKASLEA

Lau urteko umea daukat eta hark normaltzat joko du mobila, hazten denean. Bestetik, gaztetxoek harremanetarako tresna modura dute eta zigorrak jarri behar izan ditugu, gehiegizko erabilera dela eta. Ezinbestekoa dela dirudi, baina ez litzateke horrela izan behar. Gehiegi erabiltzen dute.

NEKANE MUÑOZ | ADIN TXIKIKOA

Gure lagunartean oso gutxik dute sakelakoa eta duenak asteburuetan gurasoekin geratzeko erabiltzen du. Baina 13-16 urte bitarteko gehienek badute eta argazkiak ateratzeko eta elkarri mezuak bidaltzeko erabiltzen dute gehienetan, jolasean aritzeko azken baten.

Egunkarietako harribitxiak

URTE BAT ZABORRETARA BOTATA
Urtebete da Gipuzkoako Mankomunitateek eta Udalek errauskailua Donostian egiteko akordioa lortu zutela. Gaur egun geldi dago kontua; hala zioen atzo *Deia*k. Foru Aldundiak uste du hartutako erabaki hura teknikoki egokiena dela eta ez dator bat Odon Elorzak eman dion kutsu politikoarekin.

'Deia'
2005-06-19

IGANDEA 19 EKAINA 2005

Gipuzkoa

UN AÑO TIRADO A LA BASURA

Gipuzkoa mantiene un volumen medio de agua embalsada superior al 90%

Cruce de acusaciones

¡ATENCION! ¡OFERTA! CÁMARAS DE FOTOS DIGITALES

SUPERSONIDO

EUROPAKO BATASUNAREN ETORKIZUNA KINKA LARRIAN
Hasi bezala amaitu da EBko estatuburuek eta gobernuburuek asteburuan egindako goi bilera. Etorkizun beltza du orain EBk, eta porrotaren errua Erresuma Batuari egotzi diote Frantziak eta Luxenburgok. Europako Konstituzioari buruzko prozesuaren gaineko erabakirik hartzeko gai ez ziren izan hogeita bostak. Horren lekuan ebazpena urtebetez atzeratzea erabaki zuten. Eguenean izan zen hori, bileraren lehen egunean. Akordiorik lortu ez izanak desagertarazi egin zituen aurrekontuari buruzko eztabaidarako zeuden itxaropen gutxiak. Hala, diru laguntzak adosten ez dituzten artean, EBn sartu berri diren herriek ere ezin izango dituzte hedapenerako laguntzak jaso.

'Berria'
2005-06-19

Harian

EBren etorkizuna kinka larrian

Tira, tira...

Montxo 'Berria' | 2005-VI-19

Zorroztailea



Telezaborreko detektibeak

"Albano Salsa Rosara joango da eta ez da ezer gertatuko. Eta Lidia egunen batean platoan agertuko da eta jendeak txalotuko du (...) Salsa Rosak beste aukera bat emango dio Lozanori barkamena eskatzeko, sekula existitu ez den eta inork sinistu ez duen esklusibagatik. Inork ez, audientzia-kopuru handiak salbu".

'Periodista digital' | 2005-6-18

Juan Luis Azkarate

Arena blanca, mar azul elkarri begira abesten zuten, eztiki. Gure ume garaian sarri agertzen ziren telebistan. Mutila zatarra, txikia eta sinpatikoa, kantari italiar-italiar erromantiko horietako bat. Neska garaia, estatubatuarra, edertasun pinpirin baten jabe. Tyrone Powerren alaba.

Eurena ipuinetako bizitza zen 1993 arte,Ylenia alaba errebeldea New Orleansen desagertu eta hil ei zen arte. Atsekabeak jota, bikotea banandu egin zen eta Albano&Romina Powerren balada ordainezinak ez genituen gehiago entzun.

Baina, bat-batean, Lidia Lozano agertu zen, Anacletoren Akademian ikasitako kazetari-ikerlari prestua. Mundua astinduko zuen berria ezagutaraztera agertu zen zapatu gau baten *Tele 5*eko Salsa Rosa saioan. Ylenia bizirik zegoela esan zuen eta, hau egiaztatzeko, argazki bat erakutsi zuen, Turineko Izararen erretratu hura baino lausoagoa. Antza, edozein gauzak balio du frogatzat bihotzeko zirku errentagarrian. Oso merke daude *reality show*etako frogak, fikziozkoak baino merkeago, eta edozein tonbolatan eskuragarri.

Ikerketa barregarri hau Salsa Rosako saio askotan gai nagusia izan da, eta bertan Carisi-Power familiako hainbat kide ere izan dira, dirutza baten truke, noski. Azkenean afera badirudi bukatzera doala, Albanok Lidia Lozanori jarri dion demandarekin. *Tele 5*k 210.000 euro eman beharko dizkio kalte-galeretan betaurreko txikiko kantariari.

Hala ere, Lozano telezaborreko detektibeak errentagarri jarraituko du izaten *Tele 5*rentzat. Zein izango da bere hurrengo kasua?

"Badirudi afera bukatzera doala, Albanok Lidia Lozanori jarri dion demandarekin. *Tele 5*ek 210.000 eman behar dizkio"

"Hala ere, Lozano telezaborreko detektibeak errentagarri izaten jarraituko du *Tele 5*entzat. Zein izango da hurrengo kasua?"

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'
JAUZIA

ETAren erabakiak euskal eragile politikoen erantzuna ere eragin beharko luke, alderdi politiko gehienentzat su-etena ez den guztia urrats txikiegia bada ere. ETAren erabakiak elkarrizketarako baldintzak hobetzen dituen neurrian, ekimen bateratuetarako aukerak ere handiagoa beharko luke. Espetxe politika aldarazteko, adibidez.

Imanol Murua Uria
2005-06-19

'Gara'
ALDE BATEKO ERABAKIA

PSOEko eta PPko kargu publiko askoren bizi baldintza gogorrak leunduko ditu ETAren erabakiak. Ezerezean geratu behar ez den keinua da. Ondo egingo du gobernuak baretze dinamika bultzatzeko eskura dituen baliabideak erabiltzen. Hala, auzi honek eragindako alde askotariko sufrimendua gutxitzeko.

Editoriala
2005-06-19

'Deia'
'EZKONTZA' OPARITZAT

Bikote homosexualen ezkontzak ez du familia hondatuko. Beste zerbaitek hondatuko du herri aurreratuetan familia. Ikus, bestela, umerik gabeko zenbat bikote heterosexual dagoen gaur egun gure artean. (...) Eskuin-eskuineko alderdia indartzea bakarrik lortuko dute gotzainek beren jokabidearekin.

Mikel Atxaga
2005-06-19

'El País'
DEBOZIOZKO BOTOA

Erdialdeko hautesleria zati baten botoa berreskuratu nahi duen alderdiak akatsa egingo luke apezpikutzaren sektore obsesoenaren txoke indar bihurtuko balitz. Baina elkarrekiko dependentzia dago. Horregatik, manifestaziora joan ez ziren agintariek euren jarrera zein den gorde zuten, boto emaile elizkoienen kexarik ez izateko.

Editoriala
2005-06-19

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Jon Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Aramaiok irabazi ditu aurtengo Gizon probak eta Horrekin batera Besaideren jabetza urtebetez | 18
• Arrasate Atletiko taldea Gipuzkoako bosgarren izan da kluben arteko txapelketan | 21

Añiketan arrasatearrak Elgetako futbito txapelketako irabazle | 20

EIBAR LEHEN MAILAKO ATARIAN GELDITU DA

JUAN JOSE ARRIETA | EIBAR FUTBOL TALDEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

"Eibarko zaleak oso pozik daude taldeak egindako lanarekin"

Juan Jose Arrieta, Eibarreko zuzendaritza batzordeko kide bergararra dagoeneko datorren urtean pentsatzen ari da

Jokin Etxebarria



Juan Jose Arrietak Ipuruan egin zigun harrera. Penatuta dago lehen mailara igo ezin izan direlako, baina era berean, baina

Eibarreko talisman bezala hartu ahal zaitugu?Hirugarren mailatik 2.B mailara eta handik Bigarren mailara igo zen Eibar zurekin, eta orain ia lehen mailara igo da.

Talismana? Ez. Nik nire lantxoa egiten dut gauzak ondo irten daitezen. Baina hau ez da talisman kontuekin lortzen, baizik eta lan onarekin. Eta aurtengoan, taldeak lan bikaina egin du.

Baina, azkenean ezin mailaz igo.

Pena da; azkenean guk ezin izan genuen irabazi, eta beste bi taldeek irabazi egin zuten.

Pena izango litzateke jendeak pentsatzea igo ez delako denboraldia porrot bat izan dela, ez?

Ez dut uste horrela gertatuko denik. Beti dago gaizki pentsatzen duen baten bat, baina zapatuan Ipuruan eta Eibarko kaleetan bizi zena ikusita, uste dut Eibarko jendea eta Eibarzaleak oso pozik daudela taldeak aurten egindako lanarekin.

Hala ere, denboraldi hasieran espero zenuten horren goian ibiltzea?

Ez, ez eta pentsatu ere. Bigarren mailan mantentzeko taldea egiten ahalegintzen gara denboraldi hasieretan. Fitxaketak 2. B mailatik egiten ditugu, eta ekartzen ditugun jokalariekin asmatuz gero, sortzen da aurten sortu dena, baina beste batzuetan sortzen da estu eta larri ibiltzea.

Egia esan, Eibarren zeinua hori da, eta izango da, goian ibiltzea baino, erditik behera ibiltzea.

Gainera kontuan hartu behar da bigarren mailako aurrekontu baxuena duzuela.

Baxuena, askogatik gainera. Guk badakigu zein aurrekontutan ibili behar dugun. 230.000 euroko aurrekontua izan dugu aurten, eta datorren urtean ere antzerakoa izango dugu.

Lehen mailara igo izan bagina, agian aurtengoa bikoiztera helduko ginateke, baina...

Aurten, ia jokalari denak berriak izan dira. Datorren urtean ere horrela izango da?

Bai, gauza bera. Jokalari asko joan egingo zaizkigu taldetik. Gehienak baldintzak hobetuta, eta dezente hobetuta gainera. Batzuek lehen mailan jokatuko dute, beste batzuek bigarren mailako talde handietan, eta diru aldetik profesionalak dira, eta hobekuntza handia izango dute.

Gu dagoeneko hasi gara begira. Badugu zerrenda mardul bat jokalarien izenekin, eta aspaldi gabiltza lanean; badakigu zein postu geldituko zaigun jokalaririk gabe. Datorren urtean, gutxi gorabehera, dozena bat jokalari berri izango ditugula uste dut.

Orduan, argi daukazue nondik norako fitxaketak egin behar dituzuen, ezta?

Bai, oso argi. Batzuetan azken momentuko ezustekoak gertatzen dira, joan den urtean Garitanorekin gertatu zitzaigun moduan, baina ez da hori normalena izaten.

Mendilibarrek aurten egin duen lana, bikaina, ez?

Berak egindako lana oso ona izan da. Niretzat gauzarik onena taldea maila berdinean denboraldi guztian mantentzea izan da, eta horretaz gain, Ipuruan futbola ikusi izan dugula.

Sasoi bateko Eibarrek baloia aurrera bota eta zerbait lortu ahal bazen ondo, eta bestela atzean sendo egonez lortzen zituen puntuak. Aurtengoan futbolean oso ondo egin da, atzetik baloia ukitzen jokatu du Eibarrek, eta ikusleak eskertzen du hori.

Uste dut entrenatzaile oso ona dela bera, segurua bere buruarekin, eta hemendik aurrera zorte onena opa diot, Athleticekin paper ona egingo duela uste dut eta.

"Aurtengoa ez da talisman kontuekin lortzen, lan onarekin baizik, eta taldeak lan bikaina egin du"

"Bigarren mailan mantentzeko taldea egiten ahalegintzen gara denboraldi hasieretan"

"Gure aurrekontua askogatik mailako baxuena da. Aurtengoa 230.000 eurokoa izan da"

"Jokalari asko joan egingo zaizkigu taldetik. Gehienak baldintzak hobetuta, eta dezente gainera"

"Datorren denboraldian gutxi gorabehera dozena bat jokalari berri izango ditugula uste dut"

"Ipurua futbol zelaia astero-astero beteta egoteko lehen mailara igo beharko ginateke"

EIBAR LEHEN MAILAKO ATARIAN GELDITU DA

Non dago Eibar mailaz ezin igo izanaren gakoa?

Lehen mailan hogei minutu egon eta gero, azkenean bosgarren bukatu du Eibarrek denboraldia. Guk Eibarren jokatu duten eta Eibarren jarraitzaileak diren debagoiendar batzuei mailaz igo ez izanaren arrazoiez galdetu diegu.

JOKIN ETXEBARRIA

era berean, oso pozik dago urtean zehar taldeak egin duen denboraldi onarekin.

Eta datorren urterako beste magoren bat fitxatu duzue?

Guk azken bi urteetan hemengoak diren bi entrenatzaile izan ditugu, hemengo futbola ezagutzen dutenak, hemengo filosofia eta Eibar ezagutzen dutenak, eta biak izan dira Lezamako eskolakoak. Datorren urtean eskola honetako pertsonaren bat izango ote dugun ez dakigu, baina beharrezkotzat jotzen dugu, aurretik esan ditudan ezaugarri guztiak edukitzea.

Celtari hiru puntuak kendu izana, zer iruditzen zaizu?

Lastima izango litzake lehenengo bukatu eta gero, hiru puntu horiengatik ezin igo izana. Baina legeak betetzeko daude. Hanka-sartze handi bat egin da hor, eta uste dut baten batek aurpegia eman beharko lukeela.

Ipurua lehen mailako zelaia dela uste duzu?

Bai, noski. Jarleku aldetik pixka bat eskas geldituko litzateke. Baina futbol zelai ederra dago. Gainera kontuan hartu behar da gauza handiegirik ezin dela egin Ipurua handitzeko.

Bagabiltza obra batzuk egiten. Entrenamenduetarako zelai txiki bat konpondu dugu, tribuna azpiak prestatuko ditugu aldagela, gimnasio eta bulegoekin. Eta hortik aurrera ez dago luzatzerik, ez luzeeran, ez eta zabaleran.

Aurten zenbat bazkide eduki dituzue?

Gaur egun 3.400 inguru horretan gabiltza. Baina umeak asko dira.

Eta datorren urterako zenbat espero dituzue?

Aurtengo kanpaina ona ikusita kopuru hori igoko dela uste dut. Baina ez gehiegi. Gainera, kontuan hartuta ez garela mailaz igo, are eta gutxiago.

Hala ere Ipuruak 5.200 eserleku ditu, eta ez dut uste sekula 4.500 bazkide baino gehiago izatera helduko garenik.

Zer gehiago egin behar du Eibarrek Ipurua astero-astero beteta egoteko?

Lehen mailara igo.

JON URZELAI |
EIBARREKO JOKALARIA
2002-04 DENBORALDIETAN

"Pena izan da azken jardunaldian gertatu dena, baina oso zaila zen igotzea. Recreativorekin 0-0 berdindu ondoren, ez zuen bere eskuetan igotzea, Celta eta Cadizen eskuetan baizik, eta azken jardunaldietan lehen mailara igotzea jokoan dagoenean oso zaila da sorpresaren bat ematea. Pena da igo ez izana, baina gauza positiboekin gelditu behar gara. Eibarrek sekulako denboraldia egin du, joko bikaina erakutsi du eta Eibarzaleek euren taldearen jokoarekin disfrutatu egin dute. Denboraldi osoan goian mantendu da, eta gainera Espainia mailan errespetu handia irabazi du, eta hori ez da gutxi".

MIKEL LARRAÑAGA |
EIBARREKO JOKALARIA
1998-2002 DENBORALDIETAN

"Hasierako pena pasa eta gero, denboraldiaren balorazio orokorra egiten hastean, Eibarrek sekulako denboraldia egin duela ezin daiteke ukatu. Aukera zaila zeukan; besteen emaitzei itxaroten gelditu behar zarenean hori gertatzen da; baina ez delako igo ezin dezakegu pentsatu gauzak oker egin direnik. Eibarrek aspaldiko futbolik onena erakutsi du, zaleek taldearekin eta haren jokoarekin disfrutatu egin dute, eta horrekin gelditu behar gara. Ez dut uste ez igotzeko gakorik egon denik. Aste Santu inguru horretan beherakada txiki bat izan zuen, baina oso indartsu amaitu du".

IKER EGAÑA |
EIBARREKO PRESTATZAILE FISIKOA 1998-2004 EPEALDIAN

"Izugarrizko pena da 20 minutuan lehen mailan egon eta azkenean bosgarren egitea. Pena da, urte, joko eta planifikazio oso on bati amaiera ezin hobea ezin izan zaiolako eman. Baina, kontuan hartu behar dena da, Eibarri aurten talde honek zer eman dion. Herrian sortu den giroa taldearen inguruan sekulakoa izan da, eta hori oso polita da. Ez igotzearen gakoa Mendilibar berak esaten zuen: azkenean, beste hiru taldek gauzak zuk baino apur bat hobeto egin dituzte. Nahiz eta talde moduan ez den horrela izan, momentu puntualetan horrela gertatu da. Hala ere, Eibarrek sekulako meritua dauka".

IGOR ARENAZA |
EIBARREKO JOKALARIA 94-99
ETA 2000-01 DENBORALDIETAN

"Ezin dira lehen mailan egon ziren 20 minutuak bakarrik ikusi; denboraldi osoa begiratu beharra dago, eta ez dut uste Eibarren kexatu ahal izango direnik bere taldeak egin duen denboraldiarekin. Ez du zorte gehiegirik izan, epaileek ez diote gehiegi lagundu; beti ere talde handi bati laguntzea errazagoa izaten da, nahiz eta hori, berez ezin daitekeen erakutsi. Igotzea gehien merezi zuen taldea izan da, baina, futbola horrelakoa da, eta askotan gehien merezi duenak ez du fruiturik jasotzen. Pena da, Eibar lehen mailan ikusita asko disfrutatuko nuelako, baina beste batean izan beharko du".

JOSE JAVIER BARKERO |
EIBARREKO JOKALARIA
2000-2002 DENBORALDIETAN

"Pena izan da, denok geundelako Eibar lehen mailara igoko zen esperantzarekin. Zaila zen; azken jardunaldian Cadizek eta Celtak ez irabaztea ia ezinezkoa zen, eta horretaz gain partidua irabazi beharra zegoen. Hala ere, horrek ez du kentzen Eibarrek egin duen denboraldi bikaina. Joko oso polita erakutsi dute, zaleei ilusioa ekarri diete, errespetua sortu du eta guztira 73 puntu lortu ditu. Hori guztia lortzea Eibar bezalako talde batentzat txapela kentzeko modukoa da. Pena da duela hilabete Ipuruatik joaten utzi zituen puntuak. Hala ere, txalotzeko moduko denboraldia izan da, Eibarrek egindakoa".

ANARTZ AGIRRE |
EIBARREKO PARTIDUEN ESATARIA ETB-RAKO

"Pena izan da, aukera historikoa zuelako, eta horrelako beste baten zaila izango delako berriz aurkitzea. Hala ere, ezin gara horrekin bakarrik gelditu. Eibarrek sekulako denboraldia egin du, eta jokalari, entrenatzaile eta guztiei egindako lan bikaina eskertzea besterik ez zaigu gelditzen. Iaz Amorrorturekin erakutsitako joko ona aurtengoan hobetzen jakin dute, eta aspaldian Eibarrek egindako jokorik onena erakutsi du. Ez igotzearen gakoa ez dakit non aurkitu. Partidu asko etortzen zaizkit burura, baina gakoetako bat bigarren itzulian Ipuruan irabaztea asko kostatu zaiola izan daiteke".

ALAVES | BABAZORROEN GAINEAN JARDUN DUGU IBARREKO BI KAZETARIREKIN

Alavesek gorabeherak izan ditu aurten Piterman bereziaren eskutik

Azken bi denboraldietan bigarren mailan egon eta gero, Alavesek onenekin jokatuko du datorrenean, beste hiru euskal taldeekin batera

Eneko Azkarate

ARGAZKI PRESS

Dimitri Pitermanek arazo ugari izan ditu aurten hedabideekin-eta. Astelehenean pozik zen lehen mailara igo ostean.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Gorka Etxabek esatari lanak egiten ditu Mendizorrotzan.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Rafa Mungiak ETBrako jarraitu du aurten Alaves.

Urte zaila izan du talde gasteiztarrak Pitermanen eskutik. Ukraniarraren eta Alavesen gorabeheren gainean jardun dugu Debagoieneko bi kazetarirekin: Rafa Mungiarekin (ETB) eta Gorka Etxaberekin (GOITB).

"Merezimenduz igo du Alavesek, ikuskizun polita eskainita zelaian. Mendizorrotzan jokatu dituen partiduetan oso talde gutxi izan dira Alaves baino hobeak. Gasteiztik urruti ere maila ona erakutsi du". Gorka Etxaberen hitzak dira. Mendizorrotzako partiduetan aretxabaletarraren ahotsa entzun ahal izan dugu, berak ematen dielako zalei hamaikakoen zein aldaketen berri eta beste ohar batzuk, megafoniatik.

IRABAZTEAK BALIO DU

Beste adierazpen hauek, berriz, Rafa Mungiarenak dira. Arrasatearra Elxen zen joan zen domekan, Alavesek lehen mailara igotzea lortu zuenean. "Kluba erosi eta urtebetean lehen mailara igo du Pitermanek. Hortaz, berme bat ematen dio, nahiz eta baimenik ez, nahi duena egiteko. Azkenean, irabazteak balio du jendearendako. Lehengo egunean, 25.000 lagun zeuden Andre Maria Zuriaren plazan".

JAUN ETA JABE

Dimitri Pitermanek agintzen du Alavesen. Futbolean, presidente guztiak berezi samarrak dira, baina ukraniarra bezalakorik ez da: bera da presidente eta entrenatzaile (ofizialki, Chuchi Cos kataluniarra den arren prestatzailea). Hark agintzen du elkartean, bulegoetan zein aldageletan, eta horrek arazoak sortu dizkio hedabide, zale, futbol agintari eta politikoen artean. "Piterman ezin du inork jasan futbolaren munduan; Palamosen eta Racingen txarto amaitu zuen eta ikusiko dugu nola amaitzen duen Gasteizen". Bigarren mailako Ciudad de Murcia taldeko presidente Quique Pinaren hitzak dira eta Pitermanek izan duen enegarren ika-mikaren adierazle bat besterik ez da.

"Urtebetean lehen mailara igo du Pitermanek; irabazteak balio du jendearendako"

HEDABIDEEKIN ERE ARAZOAK

Gasteizko hedabideekin, batik bat boteretsuenekin, *El Correo* eta *Radio Vitoria*rekin hain justu ere, arazo ugari izan ditu aurten; izan ere, apirilaz geroztik eta joan zen astean lehen mailarako txartela lortu zuten arte, debekatu egin die jokalariei prentsaren aurrean adierazpenak egitea, eta horrek sutan jarri ditu kazetariak.

Gasteizeko hedabideekin, boteretsuenekin batik bat, arazo ugari izan ditu

Gasteizko alkate Alfonso Alonsok, bestalde, utzi egin dio azkenaldian Mendizorrotzara joateari, denboraldi hasieran palkoan sarri agertzen bazen ere; behin, Raxoi eta San Gil alderdikideekin ere bai.

URTEBETE GASTEIZEN

Piterman iazko uztailean heldu zen Gasteizera, Alavesen akzioen %51 bereganatu eta gero. Santanderretik etorri zen. Santanderreko Racingen akziodun nagusia zen (%24) eta han ere presidente-entrenatzaile jardun zuen. Lehenago, Palamosen ere, antzeko zerbait egin zuen. Bestalde, Espanyol erosten ahalegindu zen Clementeren bigarren aldian, eta baita Rayo Vallecano, Frantziako bigarren mailako Valence taldea eta beste eskubaloi talde batzuk ere.

"Oso arraroa da autobus berri dotorea erostea kluba saldu nahi baduzu"

Baina, zergatik kirol elkarteak erosteko nahi hori? "Dirua ez dut uste aterako duenik Alavesekin, baina mentalitatea amerikarra du erabat eta badaki futbolak, goreneko mailan, daukan oihartzuna. Agian beste klub bat erosteko tranpolina da Alaves, batek daki" diosku Rafa Mungiak.

NORTASUN BEREZIA

Dimitri Piterman ukraniarra da sortzez, baina Amerikako Estatu Batuetan luzaroan bizi izandakoa da. Atletismoan goi mailan jardundakoa. Aberatsa, ondasun askokoa. Gorka Etxabek gertutik ezagutzeko aukera izan du: "Nik ez nuke esango pertsona txarra denik, ezta gutxiago ere, baina bai berezia. Tratuan gizon jatorra da" diosku.

Pertsona berezia eta gauza bereziak egitea gustuko duena; *Interviu* aldizkarian larrutan agertu zen.

DIRUAREKIN BUELTAKA

Dirua ez da Pitermanendako arazo, baina, hala ere, arazoak izan ditu diruagatik, zorrak direlaeta: Iberdrolarekin, Eibar taldearekin… Jaime Barriusok, Eibarko presidenteak, salatu egin du 16.000 euro zor dizkiolako, Alavesek Ipuruan jokatu zuenean armaginek gasteiztarrei lagatako sarrerenak, oraindik ordaindu ez dizkionak.

Entrenamenduetan ere teknika bereziak erabiltzen ditu. "Jokalariei musika kate txikiak erosi zizkien eta entrenatzeko musika ipintzen dute, jokalariek aukeratutakoa. Aldageletan ere, partiduak hasi aurretik, topera jartzen dute musika, jokalariei adrenalina altxarazteko", dio Etxabek.

ALAVES SALDU?

Beste berezitasun bat: ez da Gasteizen bizi, Santanderren baizik, eta egunero egiten du joan-etorria Gasteizera.

Bestalde, azkenaldian zurrumurru bat zabaldu da Gasteizen: kluba saldu duela. Esaten denez, Pitermanek klausula bat sinatu zuen Alaveseko akzio gehienak erosi zituenean, aurreko presidente Gonzalo Antonekin. Klausula horretan aipatzen zen Alavesek lehenengo mailara igoko balu, akzioak saldu egin beharko zizkiola jatorria Gipuzkoan duen Arabako etxe eraikitzaile famatu bati. Pitermanek 9 milioi eurotan salduko lituzke orain dituen akzioak; bere garaian erositako prezioa baino askoz ere gehiago. "Pitermanekin edozer gauza da posible, baina lehengo egunean, ongi-etorria egin ziotenean, aurkeztu zuen lehen mailan jokatzeko autobus berri dotorea, eta arraroa da autobus bat erostea ez dakit zenbat milioi gastatuta, kluba saldu nahi baduzu…".

Agian, beste klub bat erosteko asmoa dauka. Entzuten denez, Mallorca erosi nahi du. Horrela balitz, maletak egin eta hara joango litzateke bere *troupe*-arekin: Chuchi Cosekin, Rafa Monfort kirol zuzendariarekin eta berarekin batera Gasteizera etorritako Bodiporekin, Corominasekin...

ALEBIN MAILAKO FINALAK I ARRASATEKO SOLANO TALDEA MUTILETAN ETA BERGARAKO ARLOTEAK TALDEA NESKETAN IZAN ZIREN TXAPELDUNAK

Arloteak eta Solano taldeak izan ziren irabazle zortziko finalean

17 taldek parte hartu zuten guztira: 12 mutilez osatutakoak eta beste bostak neskez osatutakoak

Garaikurrik ez zietela emango eta, entrenatzaile eta guraso batzuek antolatzaileak kritikatu zituzten

Jon Unamuno

Bost jardunaldiren ostean, zapatuan jokatu ziren alebin mailako futbol zortziko finalak. Aretxabaletan izan zen zita eta beroa protagonista. Hala eta guztiz ere, umeengan ilusioa zen nagusi eta beroa bigarren mailan gelditu zen.

Lehenik eta behin neskek jokatu zuten. Hemen Arizmendi eskolako lau taldek eta Bergarako Arloteak taldeak jokatu zuten. Azken hauek irabazi zuten finala, huts eta bi, Ane Vicentek sartutako bi golei esker. Lehen zatian sartu zituzten bi golak. Bigarren zatian, beroak eragindako nekea zela eta, partiduak behera egin zuen eta markagailua ez zen gehiago mugitu.

Mutilen txanda heldu zen ondoren. Goizeko 10:00etan hasi ziren jokatzen eta finala eguerdiko 13:00etan jokatu zen. Bergarako Madura taldea eta Arrasateko Solano taldea izan ziren finaleko aurkariak. Lau eta hiru irabazi zuten Solano taldekoek. Zati bakoitza talde batena izan zen. Lehen zatian arrasatearrak izan ziren indartsuagoak eta aurretik ipini ziren markagailuan (3-1). Bigarren zatian , ordea, Madura taldeak azken hitza ez zuela esan erakutsi nahi izan zuen eta asko estutu zuten. Hala ere, epailea protagonista bilakatu zen eta hartu zituen erabaki batzuk zirela eta, Bergarako taldekoek oso haserre bukatu zuten partidua.

BALORAZIO DESBERDINAK

Lehenengo aldiz izan da ibarrean halako txapelketa. Kirol eskolan dauden umeak dira eta gure probintzian halako adinean ezin da lehiaketa bultzatu, baina Diputazioarekin eta Realarekin lortutako akordio baten bidez, txapelketa jokatu ahal izan zen.

Garaikurrik ez zegoela eta, kexak entzun ziren entrenatzaile eta gurasoen aldetik. Debagoieneko Realeko arduraduna den Bixen Calzonek zera adierazi zuen: "Badakigu hanka-sartzea izan dela". Hala ere, amaieran, umeei Realeko posterra eta arropak oparitu zizkieten.

Bost jardunaldiren ostean, zapatuan jokatu ziren alebin mailako futbol zortziko finalak

Aldundiarekin eta Realarekin egindako akordioa dela eta, jokatu dute txapelketa

AINTZANE AGIRRE

Arloteak taldeko bergararrek irabazi zuten nesketan finala. Txapelketa batzuk irabazi dituzte dagoeneko.

JON UNAMUNO

Eguerdiko 13:00etan bukatu zuten finala Solanok eta Madurak. Azkenean arrasatearrek irabazi zuten.

• TXAPELKETAN PARTE HARTUTAKOEN ESANAK

JON I BERGARA

"Pena da finala galdu izana, baina ondo pasatu dugu eta hori da garrantzitsua".

AITOR, AGUSTIN, OMER ETA JON I BERGARA

"Bi partidu jokatu ditugu. Agustin entrenatzailea eta gurasoekin etorri gara txapelketako azken jardunaldira. Behin txapelketa amaituta, lagunen artean jokatuko dugu".

JABI, ARATZ, DANI, IKER ETA AITOR I ARETXABALETA

"Jokatutako bi partiduak galdu ditugu. Beste partiduak ikusten ere ondo pasatu dugu. Hurrengo urtean berriro jokatuko dugu futbolean, asko gustatzen zaigu eta".

LEZETXIKI TALDEA I ARRASATE

"Jokatutako bi partiduetan irabazten hasi gara, baina ezin izan diogu emaitzari eutsi. Txikienek Santamarinan jokatuko dugu astelehenean", esan zuten Garagartza auzoko taldekoek.

SANTA TERESA ETA SAN VIATOR I ARRASATE

"Penaltietan bukatutako partidua oso interesgarria izan da. Urte guztian ibili gara futbolean jokatzen eta modu polita da bukatzeko. Gainera, lagunak egin ditugu", esan zuten.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2005eko ekainaren 20a

Ehun haur inguru bildu ziren Eskoriatzako igerilekuan zapatuan egindako erakustaldian

Kimu mailako gaztetxoek jardun zuten eta igeriketa bultzatzea zuen helburu

Jasone Zabala

Zapatuan egin zen Eskoriatzako Intxaurtxuetako kiroldegiko igerilekuan kimu mailako (95/96 eta 97/98 urteetako gazteak) neskamutikoen erakustaldia.

Guztira ehun haur inguru izan ziren bertan, eta hainbat herritatik etorri ziren parte hartzera: Bergarako igerilariak, Legazpikoak, Oñatiko Aloña Mendikoak, Eskoriatzakoak eta sortu berria den Arrasateko Arizmendi taldekoak. Erakustaldia arratsaldeko 15:30 ean hasi zen. Lehenengo, beroketa egin zuten joko batzuen bitartez. Ondoren, hainbat proba egin zituzten txikiek, bakoitzak zekien estiloan: krol, bular, tximeleta eta bizkar estiloa. Oso ondo erakutsi zuten irakasleek orain harte erakutsi dietena ederki ikasi dutela igerilari gaztetxoek.

IGERIKETARI BULTZADA

Guztientzat izan ziren dominak, denek ederki egin baitzituzten probak. Zapatukoa izan zen, Arizmendik Arrasateko haurren artean igeriketa bultzatzeko egin nahi dituen ekimenetako bat, eta horrela poliki-poliki Arrasateko herrian igeriketa berpiztea lortu nahi dute. Amaitzeko esan, jende ugari bildu zela bertara, batez ere gurasoak, eta giro ezin hobea izan zela arratsalde guztian zehar.

Haur asko izan zen zapatuan Eskoriatzan, baina denek itxaron zuten beraien txanda.



Ederki erakutsi zuten txikiek estilo guztietan ondo baino hobeto moldatzen direla.

Haurrak, epaileak irteera noiz emango zain prest eta adi egon ziren.

Denak izan ziren txapeldunak zapatuan. Domina bana eraman zuten etxera.

• HAURREK BERAIEN IRITZIA EMAN ZIGUTEN

ITSASO ETA MIREN I OÑATI

"Igeri egitea asko gustatzen zaigu, nahiz eta gaur urduri gauden, gurasoak etorri dira ikustera eta. Igeri egiteko gehien gustatzen zaigun estiloa krola da".

AMAIUR, IXIAR ETA MAIDER I OÑATI

"Gehien gustatzen zaizkigun estiloak krola eta bizkarrekoak dira. Guztiok, urtebete eta hiru urte inguru gabiltza igeri egiten, eta asko gustatzen zaigu. Nahiko urduri gaude; gurasoak etorri dira ikustera. Hala ere, espero dugu ondo egitea igeri".

NEREA ETA MIREN I OÑATI

"Igeri egiteko gehien gustatzen zaiguna krola da, eta igerileku hau asko gustatzen zaigu. Jende asko etorri da ikustera eta pixka bat urduri gaude".

NAGORE ETA ZURIÑE I OÑATI

"Orain dela hiru urte hasi ginen igeri egiten. Krola da gehien gustatzen zaigun estiloa, baina badakigu oraindik ere igeri estilo asko dauzkagula ikasteko".

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ekainaren 27tik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 3ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria

Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 8 milioi pixel.
- Zuiko digital 14-45 mm objektiboa.
- Objektibo aldagarriak.
- Flash eta guzti.
- 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.

- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.

Laguntzaileak:

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI bidaiak
merezi duzu

kiñu
argazkilariak

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 21:00etara.

BESAIDEREN JABETZA | GOGOR LEHIATU ZIREN GOIZ GUZTIAN HIRU TALDEAK

Besaideren "jabetza" Arrazolatik Aramaiora joan da laugarren aldian

Zapatura arte Arrazola izan zen Besaideren "jabe", baina aramaioarrak hobeak izan dira aurten eta mendia eurenganatu dute

Jasone Zabala

Zapatuan jarri zuten jokoan beste behin Besaideren "jabetza". Lehian hiru talde izan ziren: Arrasatekoak, Aramaiokoak eta Arrazolakoak (Atxondo). Guztira 100 bat lagun, joan zen urtean baino gehiago. Hirugarren edizioa Arrazolak irabazi zuen eta aurten, beste bi taldeen helburua talde bizkaitarrari Besaideren jabetza kentzea zen. Guztira 9 proba izan ziren: Aramaio eta Arrazola arteko distantzia korrika, oskol batzea, apea botatzea, pilota, aizkora, zaku eramatea, sokatira, aulki jokoa eta arrautza pasatzea.

GIRO EZIN HOBEA

Arrazolako frontoi inguruan giro ezin hobean jokatu zituzten proba guztiak, eta irabazlea Aramaioko taldea izan zen, 18 puntu lortu eta gero; Arrasatek eta Arrazolak, 15 punturekin, berdinketa lortu zuten. Azken jokoa, arrautza pasatzea, ez zuten egin beharrik izan, ordurako irabazlea erabakita zegoelako.

Aipatu beharra dago, aurtengoan, Arrasateko herriak ez zuela neskarik izan taldean, eta berdintasunean jokatzeko, Aramaioko neska batzuek Arrasateko taldearekin jokatu zuten lehiaketa.

• HONA HEMEN IRUDITAN ZAPATUAN JOKATUTAKO JOKOEN NONDIK-NORAKOAK

AIZKORA JOKOA. Aizkorarekin enborra moztea bosgarren proba izan zen. Moztu beharreko enborrak ez ziren handiak, baina egunero ez denez egiten lan hau, kostatu zitzaien moztea. Hiru taldeek txandaka egin zuten lana. Azkenean, irabazlea, Arrazolako taldea izan zen eta hiru puntu lortu zituen; Aramaiok bi eta Arrasatek, bakarra.

ZAKU ERAMATEA. Zaku eramatea seigarren jokoa izan zen. Hiru bat kilo inguruko zakua bizkar gainean hartu eta ibilbide motz bat egin zuten. Guztira, lau txanda eman zituzten taldeen artean eta guztietan azkarrena Aramaioko taldea izan zen. Hiru puntu lortu zituen; Arrasatek bi puntu lortu zituen eta Arrazolak, bakarra.

SOKATIRA. Frontoian jokatu zuten sokatirako proba. Talde bakoitzeko 7-8 pertsona aritu ziren tiraka, neskak eta mutilak; hainbat tiraldi egin ondoren, Aramaioko taldea izan zen indartsuena eta haiek lortu zituzten hiru puntuak; 2 puntu Arrazolak eta Arrasatek, bat. Bati baino gehiagori eskuak zeharo minduta gelditu zitzaizkion.

AULKI JOKOA. Aulki jokoa azken jokoa izan zen. Talde bakoitzetik bi pertsonak hartu zuten parte eta 9 aulki jarri ziren. Trikitiaren soinuei jarraituz, aulkien inguruan egin behar zuten dantza musika gelditu arte, eta azkarrenak Arrasatekoak izan ziren. Bigarren Aramaiokoak eta Arrazolakoak, hirugarren.

• ARAMAIOKO TALDEAK, HIRU PUNTUGATIK IZAN BAZEN ERE, IRABAZI EGIN ZUEN

ARAMAIO "JABE"

Zortzi probetan nor baino nor aritu ziren hiru taldeak.

Arrazolak, Besaideren "jabe" izan nahi zuen beste urtebetez, baina Aramaiokoak eta Arrasatekoak gogor saiatu ziren horrela ez gertatzeko. Bi orduz izerdia botatzen aritu ondoren, Aramaiokoek lortu zuten laugarren aldi honetako garaikurra eta urtebeterako Besaideren "jabetza". Pozik jaso zuten aramaioarrek Arrazolakoen eskutik urtebetez izango duten "jabetzaren" lekukoa, eta bazkari eder batekin amaitu zuten eguna. Alboko irudietan irabazleak, pozik.

Pilota

• UDABERRI TXAPELKETA 2005



AINTZANE AGIRRE

Denboraldia amaituta, zoriontsu ageri dira Udaberri Txapelketan parte hartu duten pilotariak.

Udaberri Txapelketarekin amaitu da denboraldia

Urte guztian egindako lanarengatik ordainsari bat izan zen umeendako

A.G.

Urrian hasi zuten denboraldiari amaiera eman zioten egubakoitzean. Denboraldia jarraitu dutenen artean harridura zen nagusi. Kalitate aldetik asko hobetu dute, benjamin eta alebinetan gehienbat. Profesionalak hemen egotea ere umeak motibatzeko modu bat izan da.

Egubakoitzean Udaberriko Txapelketako partiduak jokatzeaz gain, beste emaitza batzuk ere aipatu behar dira. Horrela, kadeteetan lau t´erdian Andoni Elorzak 18 eta 16 irabazi zion Ibon Berraondori. Debarroko txapelketako finalerdiak jokatu ziren gazte mailan. Oñatiarrek 22-21 menperatu zituzten Bergarako gazteak. Bestalde, Astigarragan alebin mailako finalerdiak jokatu ziren eta Beñat Rezusta eta Igor Igartuak finalerako txartela lortu zuten.

Eskolarekin batera hasiko dute hurrengo denboraldia. Urri amaiera arte izango dute umeek pilotan izena emateko epea.

Emaitzak

BENJAMIN B

Josu Zezeaga-Mikel Gutierrez	18
Gorka Eraña-Euken Azpeitia	17

BENJAMIN A

Mikel Zulueta-Josu Erran	18
Josu Marzo-Aitor Kortabarria	14

ALEBIN B

Pello Etxaniz-Daniel Diez	18
Julen Jorge-Andoni Najera	13

INFANTIL B

Iñigo San Jose-Mikel Gallastegi	18
Eneko Zabaleta-Igor Igartua	10

INFANTIL A

Jokin Osa-Beñat Rezusta	18
Lander Ugarte-Andoni Fernandez	6

Patinak

Patin gabak 75 lagun batu zituen Arrasaten

Patin gabako antolatzaileak oso pozik agertu ziren, joan den urteko jende kopurua bikoiztu egin zuten eta

Jokin Etxebarria

Joan den urtean arrakasta handia izan zutela ikusita, aurtengoan ere Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak Patin gaba antolatzea erabaki zuen. Eta aurtengoan ere arrakasta itzela izan zuten.

Arrasateko Maiatzaren Bateko enparantzan 75 pertsona inguru batu ziren –iazko bikoitza– gaueko 22:00etan patinekin gora eta behera ibiltzeko asmoz. Patinatzen abiatu aurretik baina, minutu bateko isilunea egin zuten istripuz hildako Mondragon Unibertsitateko bost ikasleen omenez.

Denek kaskoa jarri eta abian jarri ziren udaltzainen autoaren atzetik.

IBILBIDE BERRIA

Bigarren edizio honetarako ibilbide berria egin zuten antolatzaileek. Joan den urtean bezala Arrasateko kaleetatik ibiltzeaz gain, Seber Altube plazan bukatu beharrean, Eroskiko aparkalekuetaraino joan ziren denak. Biribilgune guztietan buelta pila bat eman eta gero iritsi ziren Eroskira. Hala ere, ez zen guztia hor bukatu.

Antolatzaileak opariak banatzen hasi ziren: kamisetak eta InterSportek banatutako *skate* jantziak. Bien bitartean, parte-hartzaile guztiak hockeyan jokatzen jardun zuten. Gaua luze joan zen, eta asko datorren urteko patin gauean pentsatzen hasi ziren.

JOKIN ETXEBARRIA

Maiatzaren Bateko enparantzan 75 lagun inguru batu ziren.

Futbola

Denboraldi berrian ere, Aloñak herriko jokalariz osatutako taldea izango du

A.G.

Aloñako futbol saileko zuzendaritzak balorazio oso positiboa egin du bukatu berri den denboraldiaz. Egubakoitzean egin zuten urteko batzarra, eta Mikel Alberdi idazkariak hainbat arlo nabarmendu zituen balorazio hain positiboa egiteko: batetik, aurtengo denboraldiko talde nagusiaren lan ona ikusita, hurrengo denboraldian ere etxeko jokalariekin jarraitzea erabaki dute, eta Aitor Orueta izango da, berriz, entrenatzailea. Bestetik, futbol zelai berria dela eta, udalak emandako proposamenak azaldu zituzten, eta zuzendaritzaren nahia 5 urte barru Ibarrakoa ordezkatuko duen belar artifizialeko zelai berria izatea da.

Denboraldia agurtzeko afaria egin zuten zuzendaritzakoek eta jokalariek. Jokalari onenei sariak banatu zizkieten han. Preferente taldetik saria jaso zuten: Sergio Gilek, Roberto Idigorasek, Julen Barrenak eta Jokin Garaik.

AINTZANE AGIRRE

Denboraldiko gorabeherak azaldu zituzten egubakoitzeko batzarrean.

Txirrindularitza

• 69. SAN ANTONIO SARIA

ARTXIBOA

Txirrindulariek hasieran izan zuten pakea; izan ere, hirugarren kilometroan hasi zen borroka.

Aitor Campos garaile eta Iban Caballero hirugarren

Iban Caballero bergararrari bikia igota eta Blazquezi pedala askatuta, Camposek erraz irabazi zuen

Jon Unamuno

Lasterketa gogorra izan zen zapatukoa; izan ere, zegoen beroarekin bazirudien gurpilak errepidean itsatsiko zirela.

114 txirrindulari hasi ziren 69,5 kilometroak egiteko prest. Ibilbideari dagokionez, Antzuolako igoera zen punturik beroena eta han elkartu zen helmugara heldu zen hirukotea. Hala eta guztiz ere, lehenago izan zuen lasterketak mugimendu gehiago. Hirugarren kilometrorako laukote batek aurrerantz jo zuen. Tartean lasterketako garailea eta bigarrena zeuden. 30. kilometroan beste hiru txirrindulari elkartu ziren eta bertan zegoen Iban Caballero. Zazpikoteak indartsu jo zuen aurrera eta diferentzia polita lortu zuten.

Esan bezala, Antzuolarako bidean nagusitu ziren indartsuenak eta helmugara heldu zen hirukotea bakarrik gelditu zen. San Antonioko aldapak erabakiko zuen irabazlea nor izango zen, baina ezusteko pare bat gertatu ziren aurretik.

IRABAZTEKO GOGOAK KALTE

Ondo ezagutzen zuen helmuga Ibanek eta azken aldapara lehenengo sartu nahi izan zuen. Orduan igo zitzaion bikia eta hirugarren izatearekin konformatu behar izan zuen.

Amaieran, heldu ziren 60 txirrindularien artean, ohorezko postuetan Ibanez gain, Alberto Lopez eta Aitor Urrutia arrasatearrak sailkatu ziren.

Gimnasia Erritmikoa

Arrasateko gimnastek Seber Altube bete zuten

Arrasateko Gimnasia Erritmiko taldeko neska guztiek hartu zuten parte; 70 neska guztira

Jokin Etxebarria

Urteak dira Arrasateko Gimnasia Erritmiko taldekoek kirol hau Arrasateko kaleetara ateratzen dutela. Modu honetan, Gimnasia Erritmikoa Arrasateko jendeari zer den erakutsi nahi izaten diote, kirol hau estiramendu bereziak egitea bakarrik ez da eta. Ariketa fisiko ugariz beteriko kirola dela erakutsi nahi dute eta, bide batez, ikasleek urte guztian zehar ikasi dutena gurasoei erakusteko aukera izaten dute horrela.

Seber Altube plaza bete egin zuten egubakoitzean. Jendea harrituta gelditu zen ikusitakoaz, eta txalo zaparrada ugari eskaini zizkieten gimnastei.

70 PARTE-HARTZAILE

Adin guztietako neskek hartu zuten parte erakustaldian; 70 neskek guztira. Hasi baino lehen nerbioak dantzan ziren, batez ere txikiengan. Izan ere, kiroldegietan edo frontoietan horrelako ekitaldiak egitea ohikoa da, baina kale erdian egitera ez daude ohituta. Hala ere ikuskizun bikaina eman zuten. Txikiak hasi ziren taldekako beroketak egiten, eta gero nagusiagoek jarraitu zieten. Baina ez zen dena hor bukatu, bakarkako ariketak ere egin zituzten eta. Ariketa ezberdinak egin zituzten, uztaia, pilota, soka eta zintez lagunduta. Bertaratutako guztiak aho zabalik utzi zituzten, gainera, ariketa hauekin.

AINTZANE AGIRRE

Hainbat ariketa fisiko egin zituzten Arrasateko gimnastek.

Areto Futbola

Iazko garaileak, Añiketan arrasatearrak, aurten ere txapeldun Elgetan

Jokin Etxebarria

Elgetako futbito txapelketa ere heldu da amaierara. Ezohikoa den arren, aurtengoan ere joan den urteko final berdina jokatu zen. Eta aurten ere Arrasateko Añiketan-ek Durangoko Vicios-i irabazi zion: 5-2.

Lehen zatia oso berdindua izan zen. Partidua hasi eta berehala, Añiketanekoek gola egin zuten. Partiduaren jabe ziren, baina beroak eraginda fisikoki jaitsi egin ziren. Bizkaitarrek hori aprobetxatu zuten gora etortzeko, eta lehen zatia bukatzear zela berdinketa lortu zuten.

BIGARREN ZATIA ARRASATEARRENA

Bigarren zatia hasieratik arrasatearrena izan zen. Berehala bigarren gola egin zuten. Eta hori gutxi balitz, hirugarrena eta laugarrena jarraian sartu zituzten. Durangokoek ezin izan zuten ezer egin horren kontra eta garaipenak, beste behingoz, Arrasatera alde egin zuen azkenean.

ARTXIBOA

Aurtengoan ere Vicioseko atezainak ezin izan zuen Añiketan taldearen garaipena sahiestu.

Txirrindularitza

• QUEBRANTAHUESOS ETA TREPARRISCOS PROBAK

Jone Muxika elgetarra txapeldun Treparriscosen

Aurten ere hainbat debagoiendar joan dira tradizio handiko bi proba hauetan parte hartzera

Jon Unamuno

Sabiñanigo zikloturisten zita izaten da ekain erdi aldera urtero. Izen handiko proba da Quebrantahuesos eta hainbat jenderen entrenamenduak proba hori gertatzera bideratuak daude. 205 kilometro ditu probak eta Somport, Marie Blanque, Portalet eta Hoz de Jaca portuak igotzen dira. Oso gogorra partehartzaileen esanetan.

Aitor Kintana profesional ohia izan zen zapatukoan azkarrena. 5:36:06 behar izan zituen ibilbidea betetzeko eta 36,6 kilometro orduko abiadura lortu zuen. Aitor Larrea antzuolarrak 21. bukatu zuen 6:05:16 denbora eginez.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Quebrantahuesoseko errekorra lortu zuen Aitor Kintana gasteiztarrak.

JONE MUXIKA IRABAZLE

Quebrantahuesos probarekin batera Treparriscos proba ere jokatzen da. Proba honek 90 kilometro ditu eta Formigaleko gaina du punturik gogorrena. Jone Muxika elgetarra indartsuena izan zen emakumeen artean. Elgetako Faka Faka taldekoekin joan zen bertara eta oso pozik gelditu ziren guztiak garaipenarekin.

Aurtengo edizioan proba bietako parte-hartzaile kopurua 6.000 txirrindularitara inguratu da. Gero eta jarraitzaile gehiago dituen proba da eta gure ibarreko zikloturistek presentzia nabarmena izaten dute.

• IBARREKO ORDEZKARIAK PROBETAN

JONE MUXIKA | ELGETA

"Igoeretan txirrindulariak pasatzen joan naiz"

"Gero eta indartsuago nabaritu dut neure burua lasterketan eta, igoeretan gehienbat, txirrindulariak pasatzen joan naiz. Zaragozako bati esker lehen neska harrapatu eta pasatu dut".

JON URKIA | ARETXABALETA

"Marie Blanquen gora asko sufritu dut beroarekin"

"Marie Blanquen gora asko sufritu dut beroarekin. Bikiak igo zaizkit eta oraindik 100 km gelditzen ziren helmugaraino. Laugarren aldia da parte hartzen dudana", esan zuen Jonek.

MANU RODRIGUEZ | ARRASATE

"Diez Otxandiano anaiekin hasi eta bukatu dut"

"Diez Otxandiano anaiak eta neu joan gara eta elkarrekin hasi eta bukatu dugu. Gogorra izan da, Portalet gehienbat, baina jendearen txaloekin eramangarriagoa izan da".

Atletismoa

ARTXIBOA

4x100 metroko probako taldeak urrezko domina lortu zuen.

Arrasate Gipuzkoako bosgarren atletismoan

A.G.

Aurtengoan ezin izan du Arrasate Atletiko Taldeak joan den urteko emaitza bikaina berdindu. Hala ere, ez da txarto ibili, bosgarren bukatu du eta asteburuan jokatu den Gipuzkoako kluben arteko txapelketa.

Emaitza oso onak egon dira. 4x100 metrotan adibidez, urrezko eta zilarrezko dominak lortu dituzte arrasatearrek. Bi taldek hartu zuten parte proba honetan eta biak oso ondo ibili ziren.

PERTIKAN BIKAIN

Pertikan parte hartu zuten bi arrasatearrak ere bikain ibili ziren. Jonathan Perezek Realarekin parte hartu zuen eta lehenengo egin zuen. Lander Errastik Arrasaterekin parte hartu zuen eta bigarren egin zuen.

PILOTA

ARTXIBOA

Pilota finalak dagoeneko gainean ditugu.

Idoate eta Berasaluze ETB-kantxako finalera

A.G.

Egubakoitz arratsaldez jokatu zituzten Elgetako lau t'erdiko pilotako finalerdiak. Kadete eta 23 urtez azpikoetan partidu bana izan zen. Kadete mailan, Nafarren arteko norgehiagokan, txapela eramateko faborito nagusia zen Beroiz huartearrak, txapelketan ezusteko onena eman duen Idoate burlatarraren aurka, 19 eta 22ko emaitzaz galdu zuen; beraz, burlatarra kadete finalerako sailkatu da. 23 urtez azpikoetan berriz, Berasaluze berriztarra finalerako sailkatu zen, Argote zarauztarrari 22 eta 13 irabazi ondoren.

Elgetako txapelketako azken txanpan sartu gara dagoeneko eta esan behar da pilotariek erakutsitako maila handia izan dela bi kategorietan.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• 50 lagunek hartu zuten parte Arrasateko Margo Azkarren I. Lehiaketan | 25
• Igoa eta Serrato aramaioarrek ez zuten zorterik izan eskolarteko bertso txapelketan | 25

Angel Barandiaran Aretxabaleta abesbatzako zuzendariarekin jardun dugu | 26

I. TRIKITIXA JAIA, BERGARAN

M.B.

Euren jaia iragartzen zuen kartelaren azpian pozik jarri ziren guztiak talde argazkirako.

TRIKITIA | ELGETAKO, ELORRIOKO ETA BERGARAKO 30 BAT TRIKITILARI BATU ZIREN ZAPATUAN, BERGARAKO I. TRIKITI FESTAN

Trikitia herritarrei hurbiltzeko eta bere balioa aldarrikatzeko jaia izan zen

Bero handia egin zuen zapatuan, baina horrek ez zituen herriko trikitilariak kikildu. Egun ederra igaro zuten, pozik daude, eta jaiak datorren urtean jarraipena izango duela erabaki zuten

Monika Belastegi

Egon badaude; trikitiaren doinua maite dute eta gainerako herritarroi doinu hori maitatzen erakusteko, trikitia gugana hurreratzeko, kalera atera ziren zapatuan Bergarako trikitilariak (Jarduneko Trikiti Eskolako eta Musika Eskolako ikasleak eta beste hainbat trikitilari).

Herriko trikitizaleek I. Trikitixa jaia egin zuten herenegun eta deialdiarekin bat egin zuten Elgetako eta Elorrioko hainbat trikitilarik.

Batzuek soinua eskuan zutela, eta besteek panderoa, 30 lagun inguruk jardun zuten goizean hasi eta gauera arte herrian jai giro alaia jartzen. Gehienak emakumezkoak, gainera; hiru baino ez ziren gizonezkoak.

Herriko trikitizaleen hitzetan, "doinu tristea du gaur egun trikitiak Bergaran". Zaletasunaz ari ziren hori esatean. "Bergaran behera eginda dago trikitia, gazteen artean ez dago zaletasun handirik; ez du lekua aurkitu gazteen artean, ez beste musika estilo batzuek bezala". Hala eta guztiz ere, badirudi azken boladan zertxobait piztu dela, eta horren adibide da zapatuko jaia.

Bergaran 49 lagunek dihardute soinua joten ikasten eta 28k panderoa (Jardun Euskara elkartearen trikiti eskolan eta Musika Eskolan). Ikasle horien adin tartea da 6 urtetik 50era bitartekoa, baina antolatzaileen esanetan, "hasi bai, baina oso gutxik jarraitzen dute; bestalde, gutxi dira kalera instrumentoarekin irten nahi izaten dutenak". Lotsa ei da horren arrazoia.

> "Bergaran behera eginda dago trikitia; gazteengan ez dago zaletasun handirik"
>
> Zapatuko erantzuna ikusita datorren urtean bigarren jaia antolatuko dute

ANTOLATZAILEAK POZIK

Zapatuko jaia polita izan zen oso. Eta eurek dioten moduan, kalea girotu egin zuten; giro alaia jarri, gainera.

Aritzek, antolatzaileetako batek, oso pozik daudela esan zigun: "Ondo atera da guztia, bero egin du eta nekatu egin gara, baina ikasleak eta haien gurasoak oso pozik ibili dira eta hori oso garrantzitsua izan da guretzat; izan ere, eurak dira protagonista honetan guztian". Bestalde, elkar ezagutzeko aukera ere eman zien jaiak eta hori ere nabarmendu egin zuten.

Zapatukoa lehenengo jaia izan zen eta gauerako erabakita zuten: "Datorren urtean bigarrena egingo dugu".

I. TRIKITIXA JAIA, BERGARAN

• GOIZ, ARRATSALDE ETA GAU JARDUN ZUTEN TRIKITILARIEK

KALEJIRA. Jaia kalejirarekin hasi zuten. 12:00etan hasi eta bazkalordura bitartean herrian barrena ibili ziren Bergarako (Jardun elkarteko trikiti eskolako eta Musika Eskolako ikasleak eta beste zale batzuk), Elgetako eta Elorrioko trikitilariak. Gaztetxoak ziren guztiak, 25era urte bitartekoak. Izan ere, azaldu zutenez, badira soinua zein panderoa joten ikasten diharduten nagusiagoak, baina ez dute kalez kale ibili nahi izaten.

BAZKARIA. Artatse elkartean bazkaldu zuen trikitilari koadrilak. Goiz osoan kalean gora eta behera ibili ondoren gosetuta iritsi ziren eta gustura asko jan zuten Jarduneko Trikiti Eskolako ikasleen gurasoek prestatutako bazkaria. Bazkalorduan lagun gehiago lotu zitzaizkien gainera trikitilariei; 55 bat batu ziren. Horren harira, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie bazkaria zein beste hainbat gauza prestatzen lagundu dieten gurasoei.

EMANALDIA ETA LUNTXA. Arratsaldean taldeka eta binaka hiruna doinu jo zituzten trikitilariek Munibe plazan egokitutako eszenatokian. Horren ondotik, luntxa izan zuten eta baita saria zozketatu ere. Eusko Labeldun jakiez osatutako otzara ederra Itziar Casanellasek eraman zuen etxera. Zozketarekin jasotako dirua, berriz, eguneko gastuetarako erabili zuten antolatzaileek.

KARDANTXA 4.0. TALDEA. Eguna bukatzeko, erromeria izan zen Munibe plazan Kardantxa 4.0 taldearekin –estreinako kontzertua– eta jende gehiegi egon ez zen arren, taldetxoa batu zen dantzarako. Horren harira, antolatzaileek zioten "kritika txikia egin nahi diegu herriko dantza taldeei ez zirelako etorri". Bestalde, azkeneko kantan istripu txikia ere izan zuen mutil batek, dantzan ari zela oina apurtu zuen eta.

• TRIKITIAK KALEAN GIRO APARTA JARTZEN DUELA DIOTE PARTE-HARTZAILEEK

GARAZI I BERGARA

Sei bat urte darama panderoa jotzen eta oso gustukoa du. "Familian ikusi eta halaxe hasi nintzen. Gaur egun trikitia ez dago oso zabalduta, baina giroa pizteko oso aproposa da; kontuan izan, kalean erraz jo daitekeela".

XABI ETA MIREN I ELGETA ETA ANGIOZAR

Miren txikitan hasi zen soinua jotzen. Etxean beti entzun izan ditu trikiti doinuak eta horrek piztu zion zaletasuna. Aspaldi honetan "triste" dagoen doinua dela dio. Xabik ere soinua jotzen du, nahiz eta panderoarekin hasi zen. "Giro euskaldun paregabea" sortzen duela dio eta berari izugarri gustatzen zaio.

MADDI ETA MIREIA I BERGARA

Zortzi urte ditu Maddik eta bi hilabete daramatza panderoa ikasten. Musika Eskolan instrumentoa aukeratzeko esan ziotenean "paperean agertzen zirenak ikusi eta nik panderoa nahi nuen" esan zigun. Mireiak, berriz, zazpi urte ditu eta bi daramatza panderoarekin. Garbi dauka: "Nahi nuelako hasi nintzen ikasten".

MARIA ETA ANA I BERGARA

Zazpi urteko Mariak aitortu duenez, "hasieran pixka bat zaila da panderoa, baina orain bi urte daramat eta hobeto nabil. Anak zortzi urte ditu eta hilabete baino ez da panderoa ikasten hasi zela: "Bueno, poliki-poliki banabil", esan zigun "pieza batzuk ikasi ditut, dagoeneko".

BERTSOLARITZA I **SAIOA ARRASATEN**

Zapatuan bost deabru izan ziren Monterrongo zeruan

Non. Arrasateko Monterron parkean.
Antolatzailea. AED Elkartea.
Iraupena. Bi ordu inguru.

A.G.

Jokin Labaien (Jon Maiaren ordez aritu zen, hura gaixotu egin zen eta), Enaitz Alustiza, Amaia Agirre, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallus bertsolariek saioa egin zuten Monterron parkean. Saioaren hasieran Arrasateko bertsolaritzaren harrobia aurkeztu zuten eta horren ondotik saioari ekin zioten. Denetariko gaiak entzun genituen: batzuk, Arrasaterekin lotutakoak (dragoia, Udalatx zulatzea...); beste batzuk orokorragoak (prostituzioa, herrien eta hirien arteko ezberdintasuna...).

Saioa polita izan zen. Umore unerik ere izan zen. Amaieran, puntutan ari zirela, bertsolari batzuek zerurako eta besteek purgatoriorako bidea hartu zutenean, esaterako.



Amets Arzallus.

MUSIKA I **TXUMA MURUGARREN**

Hiru bis egin zituen Txuma Murugarren bakarlariak pianoa eta bateria lagun, Elgetako Espaloian egubakoitzean

Non. Elgetako Espaloia kafe antzokian.
Iraupena. Ordu eta erdi luze.
Taldea. Txuma Murugarren. Lagun izan zituen Rafa Aceves (pianoa) eta Natxo Beltran (bateria).

Asteleheneko Goienkaria

Bateria (Natxo Beltran), pianoa (Rafa Aceves) eta gitarra lagun zituela aritu zen Txuma Murugarren Elgetan, egubakoitz gauean. Apal hasi bazen ere zuena eman zuen hirukoteak. Jende askoren aurrean jo ez arren, behin eta berriz erantzun behar izan zituen publikoaren eskariak. Hirutan atera ziren taulara.

Murugarrenek *Nire anaiaren kotxeko argiak* azkeneko diskoan batutako abestiak eta aurreko lanetakoak jo zituen; rockero batzuetan, kantautore fin besteetan eta pianoaren laguntza soilarekin ere bai. Txumak berriz ere erakutsi zuen Euskal Herrian jarraitu behar den horietako musikaria dela.

Ispiluan kantarekin hasi zuen kontzertua eta 20 kantutik gora jo zituen. Kantautorea baino gehiago dela erakutsi zuen Txuma Murugarrenek.

Bere ibilbideko kantuei egindako errepasoan Sasoi Ilunak garaiko *Izaskun* ere gehitu zuen, beste abesti mitiko batzuen artean.

> Sasoi Ilunak garaiko *Izaskun* mitikoa ere jo zuen Murugarrenek

Eguneroko kontuez jardunda sortzen dituen kantuekin gozatu zuten Espaloira batutakoek eta dizdira handiz apaindu zituzten kantuok. Rock mundutik datorrela ez da berria eta eskema horri jarraituz egin zuen kontzertua ere.

MUSIKARI FINAK

Txumarekin aritu ziren Rafa Aceves piano jotzaile fina eta Natxo Beltran, Athom Rumba taldeko bateria jotzailea ere. Musikari finak dira Aceves eta Beltran eta horrela erakutsi zuten.

MUSIKA I **ARRASATE MUSIKALEN EMANALDIA**

Arrasate Musikaleko talde instrumentalek emanaldia egin zuten egubakoitzean Amaia Antzokian. Musika tailerreko 4-5 urte bitarteko neska-mutikoek hasi zuten emanaldia. Ondoren Combo talde modernoa, Arantzazu Idigorasek zuzendutako bi taldeak, 30 laguneko banda txikia eta Amaia Arzamendik zuzendutako Orkestra txikia ere aritu ziren. 100 bat ikasle aritu ziren ordubetez. | M.D.

OMENALDI MUSIKALA I **'TXUMA'-REN OMENEZ**

Arrasateko 3.60 aretoak heavy kontzertu oso berezia hartu zuen joan zen egubakoitzean. Orain dela gutxi hil zen Igor Eizagirre *Txuma* arrasatear gazteari omenaldia antolatu zioten bere lagunek eta bere gustuko heavy soinuak jotzen dituzten Ondarroako Keu eta Lekeitioko Ileon aritu ziren. Emanaldi indartsua izan zen eta jendea gustura aritu zen batzuen eta besteen doinuak entzuten. | M.D.

LITERATURA I **KM'05-EKO LIBURUA KALEAN**

Dragoiaren Orroa izena dauka KM'05eko liburuak. Egubakoitzean aurkeztu zuten. Fernando Morillo idazleak hasi eta Roberto Izagirre bergararrak amaitu du liburua. Elkar argitaletxeak argitaratu du gazteendako liburua. Aurkezpenean izan ziren Fernando Morillo egilea, Xabier Mendiguren editorea eta Km-ko ordezkari Andoni Mujika, Arantza Ozaetak aurkeztutako ekitaldian. | M.D.



ARTXIBOA

Maite Lazkano eta Asier Ena bergararrak Seguran jokatutako iazko txapelketan.

Asier eta Maite bigarren izan dira dantza txapelketan

Bergarako ordezkaritza zabala aritu zen Euskal Herriko dantza txapelketan; hamabi bikotetik bost.

Asteleheneko Goienkaria

Hiru puntu oso gutxi da, baina Azpitarte anai-arrebei hiru puntu gehiago eman zieten Euskal Herriko dantza txapelketako epaimahaikideek atzo Seguran eta txapela jantzi zuten. Hiru puntu gutxiagorekin geratu ziren Maite Lazkako eta Asier Ena bergararrak (375,25 Azpitartearrek eta 372 bergararrek). Maite Lazkanok adierazi digunez, "ezin izan dugu irabazi, baina urte guztian zehar aritzen gara bi bikoteak nor baino nor eta oraingoan eurek jantzi dute txapela. Egia esateko oso ondo aritu dira Azpitarte anai-arrebak. Gure ostean egin dute dantza eta ikusteko aukera izan dugu". Hala ere, pozik zegoen Lazkano lortutako emaitzarekin.

BESTE LAU BIKOTE

Bergarako ordezkariekin osatutako beste lau bikote aritu ziren atzo Seguran. Aitzol Ena eta Miren Illarreta 4. izan ziren (357,75); Alex Torre eta Josune Fernandez 5. (327) eta Xabier Azurmendi eta Janire Urbieta 6. (316). Mikel Igartua eta Ibane Baseta, berriz, azkenak geratu ziren. Zorte txarra izan zuen bikoteak. Izan ere, Ibanek hanka okertu zuen dantzan ari zela eta geratu egin behar izan ziren lurrera jaustear egon zen eta.

Segurako pilotalekuan jokatu zen atzo Euskal Herriko dantza txapelketa eta urtero legez gainezka egon zen pilotalekua. Giro oso polita egon zen eta jendea oso gustura geratu zen. Edu Muruamendiarazen Aukeran dantza taldeak *Kutxartean* lana estreinatu zuen atzo.

MARGO AZKARREN LEHIAKETA I **ARRAKASTATSUA**

Lehenengo aldiz egin zen zapatuan Margo Azkarren Lehiaketa Arrasaten. 50 lagun aritu ziren, hainbat mailatan, Alde Zaharra margotzen. Arratsaldean egin zuten sari banaketa. Irabazlea Arranz izan zen; bigarren eta hirugarren Altuna eta Reyes izan ziren, hurrenez hurren. Herriko margolari onena Rakel Perez de Arenaza izan zen. Gaztetxoetan onenak Peru Altube eta June Ollakarrizketa izan ziren eta 10 urtetik beherakoetan Maddalen eta Iker Langaran. Lanak Monte eta Kajoi tabernetan daude ikusgai. | M.D.

BERTSOLARITZA I **ESKOLARTEKO TXAPELKETA**

Xabier Igoa (13 urte) eta Mikel Serrato (12 urte) aramaioarrek ez zuten zorte handirik izan zapatuan Altsasun jokatutako Euskal Herriko XVII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean. Lehenengoz sailkatu dira aurten finalerako –Arabatik txikienen mailan– eta beste hamar bertsolarirekin batera lehiatu behar izan ziren. Irudian, ikus daitezke Igoa eta Serrato saioko une batean, izan ere, ofiziokoa elkarrekin abestu zuten. Bi aramaioarrak maiatzaren 21ean Gasteizen jokatutako saioan sailkatu ziren. | A.G.

Hogeita bost urte egin ditu Aretxabaleta Abesbatzak, ia-ia Angel Barandiaranek zuzendari daramatzan adina urte. Jada ez dituzte lehiaketak jokatzen edo gregoriano diskoak grabatzen; hala ere, erronka berriei ez diete muzin egiten. San Migeletarako zartzuela prestatzen hasita daude Aste Santua ezkero eta, hori gutxi balitz, parrokiako organoaren mendeurrenerako kontzertu berezi bi prestatzen ari dira. Barandiaranekin errepasatu ditugu Abesbatzaren 25 urtetako arrakastak.

ANGEL BARANDIARAN | ARETXABALETA ABESBATZAKO ZUZENDARIA 1981ETIK

"Zartzuelak antzeztea ere eskatzen du, eta horrek errezeloa eragin zigun"



M.D.

Alberto Barandiaranek hogeita lau urte daramatza Aretxabaleta Abesbatzako zuzendari lanetan.

Jose Etxeandia

80ko San Jose egunean egin zenuten Abesbatzaren estreinako emanaldia. Arrazoi bereziren bat egon zen horretarako?

Abesbatza Don Bitoriano parrokoak eskatuta sortu genuen. Ordurako hamabi laguneko talde bat aritzen ginen Otxote legez eta emakumeen abesbatza izan zen herrian.

Hortaz, entseguetarako hogei bat lagun elkartu ginen eta parrokian aritzeko konpromisoa hartu genuenez, San Jose egunean egin genuen gure lehenengo jendaurrekoa.

Lehenengo urtean gizonezkoak bakarrik aritu ginen Juan Luis Izagirreren zuzendaritzapean, baina urtebetera abesbatza mistoa egin genuen. Gainera, aukera gehiago ematen ditu mistoak eta Aretxabaletako emakumeen lehengo koroan aritutakoak eta Almen eskolako nesken abesbatzako kideak sartu ziren Aretxabaleta Abesbatzan.

Gregoriano estiloa izan da zuen ezaugarri urte luzez. Nolatan sortu zen aukera hori?

Elizan abesten genuenez, pentsatu genuen gregorianoa elizan aritzeko egokia izan zitekeela. Hasieran kosta egin zen abesbatzako kideen artean gustagarri izatea, baina berehala egokitu ginen kide guztiok. Gainera, Tolosako abesbatzen nazioarteko lehiaketan gregorianoz aritzeko lehiaketa zegoenez, aurkeztea erabaki genuen eta horretarako, lehenengo Silosera jo genuen gure kantatzeko era hobetzeko asmoz. Ekimen horri esker, lehiaketan irabazteaz gainera, sasoi baten Silosen egon zen Ismael Fernandez de la Cuesta beneditar oiha ezagutu genuen, eta hari esker, gasteiztar batzuek eta guk disko bat grabatu genuen eta AEBra bidaiatu genuen kontzertuak egitera. Hori 1996an izan zen eta gure abesbatzak lan gehien izan duen sasoia izan zen.

Zergatik laga zenituzten lehiaketak eta bestelakoak?

Jarraitzen dugu lantzean behin abesbatzen erakustaldi eta antzekoetara aurkezten, baina generaman erritmoa gehiegizkoa zen. Gaur egun martitzen eta eguenetan entseatzen dugu, ordu eta erdiz. Orduan zapatuetan ere aritzen ginen eta hortik aparte irteerak izaten genituen. Kontuan izan gurea zaletasuna dela, eta ez ofizioa.

Zaila da, hortaz, abesbatza maila horretan aritzea?

Konpromiso handia eskatzen du norberaren aldetik. Bestalde, familiaren onespena ere behar da eta horri guztiari konpromisoz eutsi. Aretxabaleta Abesbatzatik hogeita bost urtetan 150 lagun inguru pasatu dira, eta gaur egun gazte gutxi dauden arren, ulertzekoa da. Musika eskolako umeekin ere aritzen gara, baina 8 urte inguru dituztenean, gero 10-12 urterekin beste ekintza batzuk nahiago izaten dituzte. Hortaz, zaila da talde gazte eta sendoa osatzea. Gurean gazte batzuk badiren arren, gizonezkoen gehiengoa nagusiak gara. Zaila da mutikoak honetara erakartzea; neskak gehiago animatzen dira.

Hala ere jarraitzen duzue erronka berriekin. Zartzuela prestatzen ari zarete San Migeletarako.

Gure bigarren zartzuela izango da. Abesteaz gainera antzeztea ere eskatzen du eta lehenengo aldian errezelo apur bat egon zen nagusienen artean, baina ondo atera zen eta espero dugu San Migeletan ere den-dena ondo ateratzea.

"Silosera jo genuen gure kantatzeko era hobetzeko asmoz eta Tolosan irabazi egin genuen"

"Gregoriano disko bat grabatu eta kontzertuak egitera AEBra joan ginen 1996an"

"Aretxabaleta Abesbatzatik hogeita bost urtetan 150 lagun inguru pasatu dira"

"Zaila da mutikoak honetara erakartzea; neskak gehiago animatzen dira"

San Migeletan 'Katiuska' zartzuela aurkeztuko dute

Aretxabaleta Abesbatza, Aste Santua ezkero ari da bere bigarren zartzuela izango dena prestatzen. Orain dela urte batzuk Guridiren *El Caserio* egin zuten eta orain, berriz, Pablo Sorozabalen *Katiuska* prestatzen ari dira. Tenore lanetan arituko da Entzi Zubiri gasteiztarra eta baritono legez J.J. Etxebarria donostiarra. Emakumezkoetan, ostera, Aretxabaletako Abesbatzako bi kide arituko dira: Maritxen Urkia eta Mª Karmen Etxandia, biak soprano bakarlari gisa. Talde instrumentalari dagokionez, Musika eskolako musikariak arituko dira, Jose Luis Francesena, Azpeitiko abesbatzako zuzendari eta Azkoitiko parrokiako organo jotzailea, pianoan lagun dutela. Abestiak gaztelaniaz egingo dituzten arren, elkarrizketak euskaratu egin dituzte. Udalaren laguntza ere izan dute jantziak eta dekoratuak Aretxabaletara ekartzeko. Bestetik, Santa Zezilia ingururako, beste bi kontzertu prestatzen ari dira. Aretxabaletako parrokiako organoaren mendeurrena betetzen da aurten eta hori dela eta, errestaurazio lanen ostean, kontzertu bereziak antolatuko dituzte parrokian; horietako batean Abesbatza arituko da organoa laguntzen.

Erromeria dantzen ikastaroa hasiko da gaur, astelehena, Bergaran

Arrasateko Udalak honako ikastaroak eskaintzen ditu: mendi orientazioa, argazkigintza digitala eta capoeira dantza

Leire Kortabarria

Erromeria dantzen ikastaro berri bat hasiko da gaur, astelehena, Bergaran, Abarka dantza taldeak antolatuta eta Juantxo Urbietak zuzenduta. Abarkako dantzariek lagunduko dute ikastaroan.

Euskal erromerietako dantza ezagunenak irakatsiko dituzte: batez ere, fandangoa eta arin-arina. Ikastaroa uztail bukaerara arte izango da, Aranzadi ikastolaren egoitzan –ohiko tokian–, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etan. Parte hartzeko, nahikoa da bertan azaltzea. Hala ere, gaur, astelehena, joan ezin duenak, etzi, eguaztena, hasteko aukera du.

Iaz ere egin zuten horrelako ikastaroa. Hasieran, helduei zuzenduta zegoen, baina gazte askok izena eman zutenez, zabaltzea erabaki zuten. Gainera, jendeak eskatu zien aurten ere egitea.

Bergara Dantzan egitasmoaren barne dago ekintza hori. Abarka, Moises Aspiazu eta Xamatz taldeek sortu zuten, euskal erromerien ohitura galtzen zihoala-eta, berreskuratzeko asmoz. Helburu horrekin, ikastaroak, Haurren Eguna, dantzaldiak... antolatzen dihardute.

ARRASATEN, BESTE HIRU

Oso bestelako ikastaro batzuk antolatu dituzte Arrasateko Gazteria eta Emakume sailek. Gazteendako, argazkigintza digital eta capoeira ikastaroak daude. Biak uztail hasieratik hilaren 20ra arte izango dira, astean bi egunetan, arratsaldez, eta matrikula da 15 euro. Bestetik, emakumeendako hiru eguneko mendiko orientazio ikastaroa dago uztail hasieran. 6 euro da. Izena emateko, deitu 943 77 00 65 zenbakira.

Labur

Oñatiko eta Aretxabaletako jaietako kartel lehiaketak abian daude

Oñatiko jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, Oñatin jaio edo bizi direnendako. Teknika librea da, eta derrigorreko testua, *Oñatiko jaixak 2005*. Lanak turismo bulegoan edo kultura etxean utzi behar dira uztailaren 15a baino lehen, ezizen edo lelo sistemaren bidez. 250 euro emango diote irabazleari, eta 125 bigarrenari.

Zabalik jarraitzen du Aretxabaletako Andra Mari jaietako kartel lehiaketak. Hil osoan dago parte hartzeko aukera.

Juan Garmendiaren gaineko liburua aurkeztuko du Velez de Mendizabalek

Juan Garmendia Larrañaga. Solasean liburua aurkeztuko du gaur, astelehena, Donostian, Jose Mari Velez de Mendizabalek. Elkarrizketa batzuetan, antropologo eta euskalari hark bere bizitzaren eta ezagutu zituen pertsonaien gainbegiratua egiten du.

Gerrak Elgetan izan zuen eraginaren gaineko hitzaldia izango da etzi

Jesus Gutierrez aditua 1936ko gerrak Eibarren eta Elgetan izan zuen eraginaren gaineko liburua prestatzen dabil, eta horren gaineko hitzaldia, *Gerra zibila Elgetan*, egingo du etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 19:30ean. Liburua datorren urtean argitaratuko dute.

Gai berbera aintzat hartuta, *Fusilatuak Gerra Zibilean* izeneko erakusketa ere badago antzokian, Aranzadi elkarteak ipinita. Ekain bukaerara arte izango da bisitatzeko aukera.

Hitzorduak

PUNK ESTILOKO KONTZERTUAK EGUENEAN ARRASATEN ETA BERGARAN | Bergaran, The Queers taldea; Arrasaten, Los Sparrer eta Never Surrender

Punk-rock doinu gogorrak dira egueneko eskaintzetako bat, estilo horretako kontzertu bana izango da-eta Arrasaten eta Bergaran.

Hala, Bergaran, Jam aretoan, The Queers taldeak disko berria aurkeztuko du: *Summer Hits nº1*. Emanaldia 21:00etan hasiko da.

Bestalde, Arrasateko 3.60 aretoak Los Sparrer eta Never Surrender herriko taldeen kontzertua antolatu du, 22:30ean. Los Sparrer taldeak Cock Sparrer-en abestien moldaketak egiten ditu. Never Surrender taldekoek (argazkian) ere punk estiloa jorratzen dute.

ZINEMA |

• *Star wars, episodio 3* filma emango dute gaur Oñatin

Kultura etxean emango dute film hori gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *Collateral* filmaren emanaldia Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

ERAKUSKETAK |

• Idoia Azkarate bergararrak erakusketa du Donostian

Kursal kafetegian du erakusketa Idoia Azkaratek. 28 lanek osatutako bilduma da. Kafetegi hori Ramon Maria Lili kaleko 2.ean dago.

• Luis Laskurainen erakusketa, ekain osoan

Luis Laskurain bergararraren margolan erakusketa, Arrasateko Arregi dendan, hil osoan utziko dute. Egunotan ixtekoak ziren, baina arrakasta handia izaten ari dela eta, luzatzea erabaki dute.

• Bergarako emakumeen eskulan erakusketa

Emakumeen eskulanen erakusketa ipiniko dute egueneean, ekainak 23, Bergarako kultura etxean, Bergarako Emakumeen Elkarteak (BEKE) eta Udalak antolatuta. Uztailaren 3ra bitartean izango duzue ikusteko aukera.

LEHIAKETAK |

• Goienaren argazki lehiaketako oinarriak

Goienaren argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Udako argazkiak bidali behar dira *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitza batera. Argazki kamera digitala, bi lagunendako asteburuko egonaldia Asturiasen edo Kantabrian, eta afari edo bazkari bat emango dituzte sari bezala.

• 12. CAF-Elhuyar sariak deitu berri dituzte

12. CAF-Elhuyar sariak deitu dituzte, zientzia-dibulgazioko artikuluendako eta dibulgazio-liburu bat idazteko. Lehenengo sailean, 2.100 euro banatuko dira lau saritan; bigarrenean, liburua idazteko proiektu onenak 4.500 euroko beka jasoko du. Sariketako oinarri osoak *www.elhuyar.org* eta *www.zientzia.net* webguneetan daude. Mugaeguna da abenduaren 1a.

ARGITALPENAK |

• Kalean da *Dragoien Orroa*, Kilometroak 2005en emaitza

Kilometroak 2005en literatura lehiaketako emaitza, *Dragoien Orroa* liburua (Elkar), kalean da dagoeneko. Fernando Morillok idatzi du beste hamar lagunen parte-hartzearekin. Gazteei zuzenduta dago.

DEIAK |

• Biblioporrak udako gida udal liburutegietan dago

Liburu eta ikus-entzunezkoen 60 gomendiotik gora batzen ditu esku-orri horrek. Bost adin multzo bereizten dituzte, eta guztiendako liburuak eta ikus-entzunezkoak daude aholkatuta. Ibarreko liburutegi guztietan eskuratu dezakezue.

• V. Juan San Martin ikerketa-beka deitu dute

Eibarko Udalak egiten du deialdia, zuzenbide eta filosofia arloko euskarazko ikerketak bultzatzeko, eta 9.000 euroko beka da. Argibideak, Eibarko Herritarren Zerbitzurako Bulegoan (Untzaga plaza, 1).

• VI. Jose Antonio Loidi ikerketa-bekako deialdia

Antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika arloetan euskarazko proiektuak egiteko 9.000 euroko beka emango du Irungo udalak. Aurkezteko epea da irailaren 5etik 23ra arte. Argibideak, 943 64 92 50 telefonoan.

IKASTAROAK |

• Larrugintza ikastaroa antolatu dute Oñatin

Elkar Hezi ikastetxeak antolatu du ikastaro hori ekainaren 28tik 30era bitartean. Izenematea zabalik dago 943 78 28 70 telefonora deituta.

Zorion agurrak

ARRASATE
Miriam Alonso
Ekainaren 23an, 23 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Rocco eta Mellow.

ARRASATE
Iker Alonso
Ekainaren 15ean, 7 urte. Zorionak! Aitatxo eta amatxo.

ARRASATE
Unai Alonso
Ekainaren 15ean, 7 urte. Zorionak! Aitatxo eta amatxo.

ARRASATE
Luisa Soriano
Ekainaren 16an urteak. Zorionak eta muxu handi bat! Familiakoak.

ARRASATE
Oier Etxebeste
Ekainaren 19an 3 urte. Zorionak eta muxu bat. Familiakoak.

ARRASATE
Magali Manzano
Ekainaren 23ean urte bat. Zorionak eta muxu handi bat! Familiakoak.

ARRASATE
Guillermo del Campo
Ekainaren 25ean urteak. Zorionak! Familiakoak.

BERGARA
Unai Arietaleanizbeaskoa
Ekainaren 16an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak.

BERGARA
Garazi Bizente
Ekainaren 17an, 2 urte.Zorionak eta muxu handi bat. Beñat eta etxekoak.

BERGARA
Maddi Oregi
Ekainaren 18an, urtebete. Zorionak! Etxekoak.

BERGARA
Mikel Alberdi
Ekainaren 18an, 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Nerea Mujika
Ekainaren 19an, 8 urte. Urte askotarako! Familiakoak.

BERGARA
Jon Gantxegi
Ekainaren 20an, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Itxaso arreba.

BERGARA
Omer Garcia
Ekainaren 21ean, 11 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Nora.

BERGARA
Yasmina Moreno
Ekainaren 21ean, 15 urte. Zorionak! Gurasoak eta Shere ahizpa.

BERGARA
Xabier Igartza
Ekainaren 22an, urtebete. Zorionak! Etxekoak.

BERGARA
Izaro Garmendia
Ekainaren 23an, 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Aitor Arietaleanizbeaskoa
Ekainaren 25ean, 2 urte. Zorionak! Etxekoak.

BERGARA
Maite Alberdi
Ekainaren 25ean, 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Unai Sampietro
Ekainaren 26an, 4 urte. Urte askotarako! Malen eta Asier.

OÑATI
Beñat Madina
Ekainaren 18an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.

OÑATI
Leire Egaña
Ekainaren 19an, 30 urte. Zorionak eta muxu bat, *Perla*! Lagunak.

ARETXABALETA
Gorka Etxabe
Ekainaren 19an urtebetetzea. Aupa Kebranta! Lanekoak.

ARETXABALETA
Eli Garziandia
Ekainaren 21ean urtebetetzea. Urte askotarako! Gelako ikasleak.

ARETXABALETA
Josu Irure
Ekainaren 20an, 7 urte. Zorionak pirata! Alaitz, Eñaut, Manex eta Monika.

ESKORIATZA
Uxue Beloki
Ekainaren 21ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Familia guztiak.

ANTZUOLA
Maren Baleztena
Ekainaren 16an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

ANTZUOLA
Oier Aranburu
Ekainaren 18an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

ANTZUOLA
Xabat Askasibar
Ekainaren 18an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

ANTZUOLA
Paula Iturrino
Ekainaren 18an, 88 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

Jaiotakoak

Maider Arkarazo Berriozabal
Elgeta • 3,470 Kg.
Ekainak 5. Gurasoak: Mikel (Durango) eta Mireia (Elgeta). Argazkian: Aizpa Mikelerekin.

Itxaso Elola Etxaniaz
Elgeta • 3,450 Kg.
Ekainak 10. Gurasoak: Pirmin (Zarautz) eta Arrate (Bergara). Argazkian: Itxaso gurasoekin.

Naroa Agiriano Beitia
Eskoriatza • 4,400 Kg.
Ekainak 12. Gurasoak: Jabier eta Lurdes (Eskoriatza). Argazkian: Naroa bapo lo.

Eider Elorza Sanz
Bergara • 3,440 Kg.
Ekainak 13. Gurasoak: Asier (Bergara) eta Nagore (Soraluze). Argazkian: Eider bere amona Begoñarekin.

Jare Lasaga Garai
Arrasate • 3,400 Kg.
Ekainak 14. Gurasoak: Roberto (Aramaio) eta Olatz (Arrasate). Argazkian: Jare bapo lo.

Ibai Cano Gavilan
Oñati • 2,810 Kg.
Ekainak 15. Gurasoak: Roberto eta Conce (Oñati). Argazkian: Ibai amaren besoetan.

Aitor Casado Biain
Oñati • 4,380 Kg.
Ekainak 15. Gurasoak: Jesus (Bergara) eta Txari (Oñati). Argazkian: Aitor amaren besoetan.

Ander Alcaide Morillas
Bergara • 3,615 Kg.
Ekainak 16. Gurasoak: Antonio eta Itziar (Bergara). Argazkian: Ander bapo lo.

Maider Agirreurreta Martinez
Arrasate • 3,330 Kg.
Ekainak 16. Gurasoak: Miguel Angel eta Sonia (Arrasate). Argazkian: Maider amaren besoetan lo.

Ion Leiba Foronda
Arrasate • 3,330 Kg.
Ekainak 18. Gurasoak: Raul eta Maite (Arrasate).
Argazkian: Ion bapo lo.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAn

Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, ARRASATE IRRATIAk egunero ematen dizu aukera hori: **Bidali eskakizuna *irratia@goiena.com* helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.**

Egunero, zorion agurren tartea ARRASATE IRRATIAn

FM107.7 ARRASATE IRRATIA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa, Telematika espezialitatea.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazio Sistemak espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa

- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.
- Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

MCCren sortzaileak eta Galiziako hauteskundeak
Elizak MCCren sortzaileei zapatuan egindako jendaurreko aitormen-ekitaldia izango dute hizpide. Horrez gain, politika gaiek ere hartuko dute lekua: batetik, Galiziako hauteskundeez eta bestetik, EAEko lehenedakariaren hautaketaz jardungo du Mikel Irizarrek.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Arabiako Emiratoen gainean elkarrizketa
Astean *Neguko programazioa*-ri agur esango diote. *Munduari begira* saioa egingo dute, eta Ian kontuengatik Arabiako Emiratoetara sarritan joaten den Jabi Altube oñatiarra elkarrizketatuko dute. Herrialde horren gainean berba egingo du.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Bergara Dantzan-ek ikastaroa antolatu du

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Homosexualen ezkontzen aurkako manifestazioa

Radio Euskadi
FM 98.2

'Boulevard' | 11:30

Eguzki-energia erabiltzen duen Arruan Aundi

Gaur telebistan

GOITB

'Baneki' saioan, bigarren finalista
21:00
Gaur gaueko saioan argituko da zein den finalera sailkatuko diren lau taldeetatik bigarrena.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Sherezade*(Egubakoitzekoak emandakoaren errepikapena).
14:10 Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki.*
14:15 Berriak aurrerapena.
14:30 Ilunpean.
15:00 Chiloe.
15:30 Berriak aurrerapena.
15:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.
19:30 Emisio hasiera.
19:35 Gaurkoak. Albisteak.
19:45 Klip@.
20:00 Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak. *Sherezade* eta *Lazkao Txiki.*
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk ibarreko gazteendako egiten duen saioa.
21:30 Harmailatik. Kirol saioan urteari gainbegiratua egingo diote.
22:00 Berriak.
22:30 Chiloé.
23:00 Harmailatik (Errepikapena).
23:30 Gaurkoak. Eguneko albisteak irudiekin errepasatzen dituen saioa.
23:45 Emisio amaiera.

ETB 1

Udako denboraldia 'Bidaide' saioan
18:35
Udako denboraldian, beste ordutegi bat eta BBC-ko dokumental ikusgarrienak euskarazko katean.

06:50 Bertatik Bertara.
07:20 Tik Tak Circus.
07:50 Betizu. *Nick eta Perry, Hirukiak, Doremiren magia, Montana, Takeru Yamato, Sasi Herriko Ipuinak, Garfield eta lagunak, Hirukiak, Burdin Aho* eta *Berebiziko espioiak.*
14:00 Gaur Egun 1.
14:35 Postdata.
14:40 Eguraldia.
14:45 Betizu. *Azken hartz zuriak, Hamilton Mattres eta Pantera Arrosa.*
17:00 Barre busa.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 E-Klipse@.
18:35 Bidaide.
19:25 Kamera ezkutua.
19:50 Betizu. *Euli Ipuinak* eta *Shin Chan.*
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
21:05 Bertatik Bertara.
21:45 Goenkale.
22:25 Sorginen laratza.
23:55 Eguna irudi-tan.
00:00 Postdata.
00:05 Sautrela.
00:35 Teknopolis.
01:05 Egi bidean. *Hotzak eta Urunduak.*
01:10 Bakarrik edo...
03:10 Bertatik Bertara.
03:40 Eklipse@

ETB 2

Tentsioa Pirinioetako lagunendako
21:55
Huescara egingo dute bidaia, eta argi barik dagoen herri huts bat topatuko dute; tentsioak izango dira.

07:00 Del país de los vascos. *Vascos en Venezuela.*
07:35 Rutas de solidaridad. *Darfur: En el punto de mira.*
08:05 Embrujada.
09:00 Forum.
09:30 El Punto.
10:05 Matrimonio con hijos.
11:00 Stargate. *Instinto maternal.*
12:00 La cocina de Pedro Subijana.
12:10 Se ha escrito un crimen.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pásalo.
18:20 Cine Western. Zehaztu bariko filma.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Operación Pirineos.
23:35 El día en imagenes.
23:45 Anatomia radical.
00:35 La zona muerta. *Una duda irrazonable* eta *Sitiado.*
02:20 Esta es mi gente.
02:55 Date el bote.

TVE 1

Ezagunak dantzan 'Mira quien baila'-n,
22:00
Anne Igartiburuk joan den astean audientzia maila onarekin estreinatu zuen saioarekin jarraituko du.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin, Susana Rozarekin eta Salvador Martin Mateosekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:15 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amarte asi, frijolito.
17:05 Amor Real.
18:15 Obsesión.
19:30 Vamos a cocinar.
20:00 Gente.
21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.
21:55 El tiempo.
22:00 Mira quien baila.
00:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.
02:00 Telediario 3.

La 2

Asturiasko itzuliko laugarren etapa
16:40
Cangas del Narcea eta Gijonen arteko etapako azken kilometroak eskainiko dituzte txirrindularitza saioan.

07:30 Los Lunnis. *Los minimonstruos, Pato Bill, Alf, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
09:30 El joven Hércules.
10:00 Popular.
11:00 Dawson crece.
12:00 Los vigilantes de la playa.
13:00 Los Lunnis.
14:10 El enemigo en casa.
14:50 Vela. Valentziatik, Amerika Kopako aurre-estropadak.
15:15 Saber y Ganar.
15:45 Grandes documentales. *La naturaleza de los campeones.*
16:40 Ciclismo. Asturiasko itzulia.
17:30 Los Lunnis.
19:30 Paisajismo del siglo XXI.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Ellen y su mundo.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La2. Noticias.
22:40 El tiempo.
23:30 Estravagario.
01:00 Metropolis.
01:30 Los conciertos de Radio3.
02:00 A ciencia cierta.
02:30 Teledeporte.
04:00 Euronews.

Antena 3

Simpson familiak saio berezia
14:00
Especial noche de brujas VIII saioaren barruan, hiru kapitulu berezi eskainiko dituzte gaur.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo Ibérico.
10:00 En buenas manos.
10:45 Cada día.
14:00 Los Simpson. *Especial noche de brujas III. El Hombre Homega, Mosca contra Mosca, Aquelarre precocinado. La familia Cartridge.*
15:00 Noticias 1.
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 Pasapalabra. Gonbidatuak: Terele Pavez, Bigote Arrocet, Alberto Amarilla eta Lara Dibildos.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliculón. *Spiderman.* Zuzendaria: Sam Raimi. 2002. Antzezleak: Tobey Maguire, Willem Dafoe, Kirsten Dunst. Peter Parker ikaslea New Yorken bizi da, osaba-izebekin. Eskolakoekin dagoenean, armiarma batek ziztatuko du.
00:40 7 dias, 7 noches. Teresa Viejorekin.
02:00 Noticias 3.
02:25 Televenta.
05:00 Saioen errepikapenak.

Tele 5

Poliziez beteta egonda ere, hildakoak
22:00
Bikote bat hilda azaltzen da hotel batean. Gainera, hotela poliziz beteta dago, batzarra daukate-eta.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorrorekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 A tu lado.
19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:15 Operación Triunfo (laburpena).
22:00 C.S.I. Las Vegas. *El sustituto muerto.*
23:00 C.S.I. Miami. *Huracán Anthony.*
00:00 C.S.I. Miami. *Gran premio.*
01:00 Crónicas Marcianas.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *Riesgo límite.* Zuzendaria: Allan A. Goldstain (1996).
04:15 Infocomercio.

Astean GOITBn

Astelehena, 20

'Harmailatik' | 21:30, 23:00

Urteko kirol hitzorduei gainbegiratua
Ikasturtea amaitzear dagoela-eta, *Harmailatik* saioak azken urtean izan diren kirol hitzordu garrantzitsuenen gainbegiratua egingo du: Liga Txapelketak, lasterketak...

Martitzena, 21

'Debarri' | 21:00, 22:30

Bergararen gainean berbetan, martitzenean
Alberto Gorritibereak zuzentzen eta aurkezten duen *Debarri* saioa ere iritsi da azken txanpara. Bergarako Victoriano Gallastegi izango da azkeneko saioan.

Eguaztena, 22

'Chiloe' | 21:00, 22:30

Puerto Ricoren gaineko lehenengo kapitulua
Maider Egues aurkezle arrasatearrak eta bere lantaldeak Puerto Ricoraino eramango gaituzte datozen asteotan. Eguaztenekoa izango da lehenengo kapitulua.

Eguena, 23

'Behazulo' | 21:30, 23:00

Capoeira zer den hobeto ezagutzeko aukera
Igor Ezpeleta eskoriatzarra dabil jo eta ke Capoeirako klaseak ematen: Eskoriatzan, Oñatin... Eta uztailean Arrasaten. Kirola eta dantza batzen dituen artea, *Behazulo*-n.

Egubakoitza, 24

'Eguzkilore' | 21:30, 23:00

Heriotzaren gaineko kontuak, 'Heriotza, atzo'
Eguzkilore-n, hileta-erritoen iraganeko eta egungo ohiturak. Besteak beste, Amezketako Santu guztien eguneko ekitaldiak landuko dituzte.

Ekainaren 20a: 049 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, ekainak 20, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

048 zozketa saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

KODAK ADVANTIX argazki-kamera.
- Josefina Aramendi
  (Antzuola)

ISTILU etxeko kamiseta bat.
- Itziar Arkauz
  (Arrasate)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
- Muruamendiaratz gozodenda
  (Arrasate)
- Andoni Alberdi
  (Oñati)

Ekainaren 27ko sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
- **ISTILU** etxeko kamiseta bat.
- **ISTILU** etxeko neskendako hiru Euskal-zapi.





TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!
Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
ekainaren
20a

Goizean: Eguzkia eta lainoa
Arratsaldean: Eguzkia eta lainoa

Hamarrekoa

AINHOA GARAI I AKTOREA

"Batzuetan denbora luzea ematen dut zer arropa jantzi erabakitzen"

Oihana Elortza

1. Famatua izateko hasi zinen aktore? Ez, ez. Txikitatik gustatzen zait antzeztea, itxurak egitea. ETBko *Hasiberriak* programarako *casting*-a egin behar zutela jakin nuenean aurkeztea erabaki nuen. Ez nuen ezer galtzeko.

2. Asteko zein egunetan deitu zizuten *Goenkale* telesailean hasteko? Egubakoitz batean. Ondo gogoratzen dut. Aratusteetako martitzenean egin nuen *casting*-a Donostian. Handik Arrasatera etorri eta marinel jantzita atera nintzen kalera, lagunekin parranda egitera. Aste bereko egubakoitzean, etxean bazkaltzen ginela deitu zidaten telefonoz, *Goenkale*-n lan egin nahi nuen galdetzeko.

3. Ibili zinen antzerki eskolan aurretik? Ez. Antzeztea gustatzen zitzaidan eta horregatik aurkeztu nintzen, baina egia esan, ez nekien nola antzezten zen, antzerki eskolan ibili barik nengoen-eta.

4. Nola gogoratzen duzu lehen sekuentzia? *Txapas*-ek orduan zuen gazteendako lekuan grabatu genuen. Ez nuen askorik esateko, baina urduri nengoen.

5. Eta lehenengo muxua? Tomaxi eman nion, eta oso urduri nengoen orduan ere. Gainera, behin baino gehiagotan errepikatu behar izan genuen sekuentzia hura.

6. Zer moduz bizi zara Zarautzen? Oso ondo. Arrasaten baino hobeto, egia esateko. Donostian dut lana, ikasketak ere hantxe egiten ditut eta une oro dut autobusa edo trena hara joateko.

7. Nola konpontzen zara Zuzenbide ikasketak eta *Goenkale*-ko grabazioak batera egiteko? Egunak eta asteak ondo antolatuta izaten ditut; zer erremedio! Astean hirutan izaten ditut grabazioak; gero apunteak lortu behar izaten ditut eta etxean ikasi.

8. Moda jarraitzen duzu? Bai, gustatzen zait. Batzuetan kirol-arropak janzten ditut eta hurrengoan, berriz, bestelakoak. Baina beti gustatzen zait apain joatea. Batzuetan denbora luzea ematen dut zer arropa jantzi erabakitzen. Badakizu, oraingo kantu ezagun batek dioen bezala: *Antes muerta que sencilla*.



OIHANA ELORTZA

Lau urte daramatza Ainhoak *Goenkale*-n eta ordutik bizi da Zarautzen. Asteburuetan gurasoak joaten dira hara, eta, beraz, gutxitan etortzen da Arrasatera. *Goenkale*-ko grabazioak dituen egunetan goizeko bostetan jaikitzen da, zazpietan makillaje gelan dago da eta zortziak laurden gutxitarako, platoan. Trikitia jotzen du oraindik noizean behin. Txori bat du etxean. 22 urte ditu.

9. Bainatzen zara egunero itsasoan? Ez. Eguzkizalea naiz eta ahal dudanean joaten naiz hondartzara eguzkia hartzera. Malekoian ere sarri paseatzen dut.

10. Zer moduz doaz azterketak? Luzea egingo zait ekaina. Ea ondo egiten ditudan.

Biharamuna

Iban Arantzabal

'Hay que' ez, egin

Non zer ikasi. Batzuek kontzertu erraldoietan dute jarria esperantza eta xumeagoetan dago etorkizuna. **Txuma Murugarren**enak hori erakutsi zidan barikuan. Barnea xumea daukagula eta izan behar dugula, xumeak oin lurtarrak eta xumea jantzia eta begien kolorea.

Zer ikasia ez dago entziklopedia handietan. **Julen Gabiria**ren liburuko *Romanetto*k dio txarto eginda daudela entziklopediak. Pertsona batzuen obrak eta garaipenak aipatzen dituztelako, baina hitzik ez pertsona horiei buruz, inoiz damu izan ote ziren egia esateagatik, esate baterako, edo **Napoleon**ek konplexurik ote zuen txikia izateagatik, edo **Casanova**ri inoiz bihotza apurtu ote zioten.

Gure artistak ere ez dira agertuko entziklopedietan, kale izenik ez dute izango eta teleberrian ez dute kantu xumeez berba egingo. Beharrezkoak ditugu, hala ere, jende gutxik irakurriko dituzten idazleak eta gutxik entzungo dituzten musikariak, egunen batean gehiagorengana heltzeko.

Irakurtzen dugu ekonomia mundialaz, armada ahaltsuez, gerrez... Eta egia esan ez dakit gurasoei-eta interesatzen zaien besterik irakurtzea. Gurasoek ez dute irakurtzen eta ez dute gura umeek entziklopedietan agertzen ez dena irakur dezaten.

Aktibismo kulturala behar dugu, herriak aktibatzea, erakundeen zain egon barik. Ez du arrazoirik falta kulturaz arduratutako **Josu De Vega**k: *hay que* erako jende gutxiago behar da eta "egiten duen" jende gehiago.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak • Posta-e: azabarte@goiena.com • Tel.: 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak/4quattro4
www.goiena.net/blogak/arregi
www.goiena.net/blogak/atai
www.goiena.net/blogak/joseba
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
www.goiena.net/blogak/ohiak
www.goiena.net/blogak/gallastegi
www.goiena.net/blogak/udalatx
www.goiena.net/blogak/vitoria
www.goiena.net/blogak/udalaitz
www.goiena.net/blogak/pando
www.goiena.net/blogak/korozabaleta